Etxekonak	auzokoak, aldamenekoak
Ezpaiñetako soiñue	ezpainetako soinua, ahoko soinua
Eztaiek	ezteiak
- G -	
Gárarie	garadia, garo-lekua; kanpoan garoa zegoen tokia
Gizaldia	mendea; belaunaldia
- I -	
Ikusmira	ikusmira
Illunbistea	iluntzea
Illunkolorea	ilunabarra
Ittauzie, itzautzie	itzautzia; hotzak egindako zauri-pitzadura, ixten zaila
Itzaie	itzaina
Itz-aspertue	hitz-aspertua, berriketaldia
Itz-motela	hitz-motela, tartamutua
- K -	
Karretea	eskolan euskaraz egiteagatik jartzen zieten lepokoa
Kiñarea	keinua, keinada
Ko(r)ajea	itxura, piura
Kukumea	kuku-umea; seme-alaba bakarra denari deiturikoa, kukuak ere ume bakarra duelako
Kuxidadea	txukuntasuna
- L -	
La(r)atza	laratza
Laborea	laborea
Lakarie	lakaria, ale neurri zaharra; ia bost litroko edukierakoa
Larrunarri / Ñañarri	Txindoki, Larrunarri
Launtasune	laguntasuna, laguntza
Lepazamarrekoa	lepo gaineko kolpea
Lixuarrie	lixiba-harria
Lixubea iñ	lixiba egin

Lokaztie	lokaztia
Lórak	urdaila eta birikak bereizteko daukagun mintza (Gazt. *ventrículas*)
- M -	
Maindirea	maindirea, izara
Maistrea	maistra
Manifestaldie	manifestazioa
Mintxurrie	mintzurria; min arina, baina iraunkorra
Mototxa	mototsa
Muttie	mintegia; beste toki batean birlandatuko diren landareen hazia ereiteko eta landareak hazteko prestatzen den lekua
Muxajea	itxura kaskarra
Muxarra	muxarra
- N -	
Nabasikerie	ase ezintasuna (*Lasai jan tzazu, umea, danontzako ainbe badau-ta! nabasikeriñ aittu be!*)
Nekazaritza	nekazaritza
Neskamea	beheko suko ontzi-euskarria
Nobiotza	ezkongai-harremana, ezkongaialdia
- O -	
Oiñazea	oinazea
Oiñazkarra	tximista
Oitze	oritza; behiak umea egin eta emandako aurreneko esnea; hiru-lau egunetan esne hau galdu egiten da
Okarrak	okerkeriak; bihurrikeriak
Okela-jana	okela-jana, haragi asko jatea
Okindegie	okindegia
Opille	opila
Orazioa	otoitza, errezoa
- P -	
Pagamentue	ordainketa
Postura	inguru, gutxi gorabehera (*zazpik eta laurden eo postura ortan*)

Prakamantala	praka-mantala; galtzontzilo funtzioa betetzen zuen alkandoraren barreneko zatia
- R -	
Rekonpentsa	ordain-saria
- S -	
Sabela	sabela, tripa
Sakela	sakela, patrika, poltsikoa
Sakona	zuloa
Santioille	uztaila, Santiago hila
Sokorra	sokorra, mokorra, zokorra
Soldatea	soldata
Surkoa	ildoa; elurretan oinez joateko erretena
- T -	
Talentue	talentua
Tiakaizoa	tiraldia, tiratua
Tiñea	lixiba egiteko zinkezko ontzi handia
Tupikie	kobrea; ontziak egiteko metala
Txamarra	txamarra, jaka
Txertaldea	txerri-taldea
Txistorra	ziztorra, txikia (*erreka txistor bat*)
- U -	
Udaldea	udaldea, uholdea, uraldia
Usarioa	ohitura, usadioa
Uxuala	usuala (Gazt. *orujo*)
- Z -	
Zainkalatranka	zangalatraba; bi hankak alde banatara jarri eta eserita joatea
Zantzue	zantzua
Zapie	zapia, oihal-zatia
Zatak	zatak, abarka antzeko gomazko oineta-koak
Zentzumena	zentzumena, zentzua
Zesuma	zer-suma; zer egin ez dakigula egon, aspertuta

Zéukenak	dirudunak; dirua zeukatenak
Zortzi aldie	astebete; zortziurrena
Zorue	zorua, zola
Zure	zura

Ahaidetasuneko izenak: aittaune "aitajauna, aitona"; amandrea "amona"; amaiarreba "amaginarreba"; amapuntea "ama pontekoa, amabitxia"

Astegunak: astelena, asteartea, astizkena, osteune, ostiela, lanbata/zapatue, jaie/igandea

Hilabeteak: ilbeltza, otsaille, martxoa, api(r)ille, maiatza, garagarrille, uzta, agoztue, agorra, urrie, azaroa, abendue

Urtaroak: udaberrie, uda, uda(i)zkena / udatzena, negue

Izenondoak:

- A -	
Amuiñatue	erabatekoa, oso zalea
Astune	astuna
- E -	
Epela	ahula, kaxkarra (*arrazoi epela*)
Estriñakoa	estrainekoa, lehendabizikoa
Eundokoa	egundokoa, sekulakoa (*eundoko txinpartak!; eundoko bei earrak!*)
Eutsie	eutsia, zuhurra
- G -	
Garbík	handirik, ziurrik (*aztarran garbík)*
Gexala	ahula, maxkala (*gexalduta*)
- I -	
Idakoa	ideakoa, kidea (*nazionalistan ídakoa*)
Idaz	ideaz, gogoz (*geen ídaz ez genduan iñ guardie*)

- K -	
Kejosoa	kexutsua
Kirakoa, kiratsukoa	kidekoa, kidetsukoa, adinekoa
- M -	
Menosa	pobrea, maila baxukoa (*jende menosa*)
Minberosoa	minberatsua
- N -	
Nabarra	nabarra
- S -	Sapatxa ahula, maxkala
Serbitzala	zerbitzala, zerbitzurako prest dagoena (Gazt. *servicial*)
- T -	
Tajuzkoa	taxuzkoa
Txamela	ahula, maxkala (*txamelduta*)

Aditzak:

- A -	
Akabatu	akabatu, bukatu, amaitu
Asaldatu	asaldatu, aztoratu
Asumatu	asmatu
- B -	
Bakandu (arbia,...)	bakandu
Balittu	balitu, baliatu; nahiko diru atera
Banakatu	banandu, bereizi
Bazkaittea	bazkaltzera
- E -	
Egokittu	egokitu, suertatu (*alamuz egokitzen tzanen*)
Embaazo iñ	enbarazu egin, endredo egin
Endreatu	endredatu, nahastu
Enpleatu	lanean hasi; enplegatu
Erain (sehaskari, etab.)	eragin (*erain baten eukitze zon aittonak umea)*

- G -	
Galaziñ	galarazi, eragotzi
Garbittu	garbitu, akabatu, hil
Gonbiatu	gonbidatu
- I -	
Iesi jun	ihesi joan
Ipiñi	ipini
Iitsi	iritsi, heldu, ailegatu
Itsatsi	itsatsi, erantsi
Itzali	itzali
- J -	
Jaulki	jaulki, alea (*garie*) askatu, libratu
- K -	
Kontu artu	kontu hartu, zaindu (*ardiri kontu artu*)
- L -	
Lurmendu	lurmendu, elurra urtu
- M -	
Maixiatu	maixeatu, kontuak nahastu
Mantendu	iraun, eutsi (*itze mantendu*)
Moxorro ibili; karnabal jantzi	mozorro ibili, mozorrotuta ibili, txantxo ibili
- N -	
Nozittu	nozitu, jasan
- O -	
Oartu	ohartu, konturatu
- P -	
Pipar iñ	piper egin, sasieskola egin
- S -	
Somatu / sumatu	sumatu, antzeman
- T -	
Tolestatu	tolestu
- U -	
Usatu	ohitura / usadioa izan

Graduatzaileak:

-A -	
Abarra	*festa abarra* "festa itxurako zerbait" *dantza abarren* "dantza eginaz bezala" *ixkutu abarren* "ezkutuan-edo"
Antxa	samarra, antza, antzekoa (*lotsati antxa izan naiz*)
Artaiño(ko)	hartarainoko, hainbesterainoko, hain (*artaiño zaarra*)
- B -	
Bealdikoa	izugarria, berealdikoa (*bealdiko baserrie, bealdiko olatue*)
Berebizikoa	handia, izugarria (*berebiziko paitea)*
Bete	*kale bete jende; kamiñoa bete-beten ardie; maie beten jarrita; ue bete azukre*
- E -	
Ezen, ezerren	Ezeren (*ezen galderaik bazue…; ezerren esperantzaik ez gendun eukitzen; eztakit eze asko; ezen terrenoik gabe)*
- F -	
Franko/ Pranko	asko, ugari (*amazanak mondeju beltzak e franko itten tzittun; angula pranko jan non nik an!*)
- G -	
Gogoti, gooti	gogotik (*azukrea re bai gogoti!; bai dantza re gooti!*)
- L -	
Legea	modukoa, antzekoa (*taberna legea, afari legea*)
- M -	
Moduz	ondo, nahikoa, egoki (*moduz jarri zuen ude*) // modu onean, merke
- S -	
Sekulako	asko, izugarri
- X -	
Xamarra	samar
- T -	
-txo	*gérotxo*: bastantez geroago; *gérotxo arten*: nahiko berandura arte

Denborazko adizlagunak:

- A -

Aldiko	aldi bakoitzeko
Aldin beiñ	tarteka, aldian behin
Arten	artean
Aitzenen	azkenean
Aurreneti	aurrenetik, hasieran
Atzenea	azkenean, bukaeran

- B -

Barrun	barruan, buruan (*amar urten barrun*)
Beziñ pronto	bezain laster

- G -

Geozti, géroz	geroztik, geroz

- N -

Noizbanakatan	noizbehinka
Noizipeiñ, noizik eta beiñ	noizik eta behin

- O -

Oaiñ (...iruroita bost urte)	orain dela
Oaiñurruna	orain hurrena, azkeneko aldian

Lekuzko adizlagunak:

- B -

Barren	barren, azpiko alde (*sabel barreneko, tripa barreneko*)

- G -

Gaiñ	*sabel gaiñe*

- I -

Ingurumari, ingumai	inguru (*ingumaiko jendek; Santio ingumariako; zazpik ingumaiako; ingumariko artzaiek*)

- J -

Jiran	biran (*etxejiran* “etxearen bueltan”)

- N -

Noara	nora edo hara, norabait, edonor

Adizlagunak (moduzkoak):

- A -	
Ankutsen	hanka hutsik
Askomuz	asko moduz, edonola
Atzenduta	ahaztuta, atzeratuta
Aztarrika	aztarrika (oiloek), lanean jo eta su
- B -	
Baezpa(e), bazpare	badaezpada ere
Banaka batzuk	banaka batzuk, gutxi batzuk
Beiñepeiñ	behinik behin
Benike	benik ere, besterik ez bada ere
Betaro	bete-betean (*euzkik betaro jotze'o*)
- E -	
Erritan	builaka; demandan
- J -	
Junerea	joan-era, joateko modua
- L -	
Luzitzik	luze iritzirik
- N -	
Naiezta	nahi ez eta
Nunbaitt	nonbait, dirudienez
- S -	
Sobrare	dirudienez, nonbait
- T -	
Teklan	tekelan, eztabaidan
- Z -	
Zertati-artatio	zertatik hartatik
Zelatan (eon)	zelatan, adi eta zaintzen (egon)

Irainak. Kalifikatiboak:

- A -	
Alkauetea	kontakatillua, kuxkuxeroa // txibatoa, salataria
Arlotea	arlotea

Artaburue	artaburua
Astakirtena	astakirtena
Astapotroa	astapotroa
- B -	
Baldarra	baldarra
Bargastea	zakarra, utzia, narrasa
Belarrimotxa	erdalduna
Berritsue	berritsua
Bixkorra	bizkorra
- D -	
Demonioa	demonioa, deabrua
- E -	
Elkorra	elkorra, zekena
Eoskorra	egoskorra
Erpizie	pertsona bizia, oso azkarra
Etxekaltea	etxe-kaltea, etxe-galgarria
- G -	
Gaixoa, gajoa, gixaixoa	gaixoa, gajoa, giza-gaixoa, koitadua
Gibelaundie	gibel-handia, arduragabea, lasaia
Gixi-txarra	gizatxarra, zitala, petrala
Gizaajoa	gizarajoa
- I -	
Iñuxentea	inuzentea
- J -	
Jantzie	jantzia, aditua, jakintsua
- K -	
Kalamidadea	alua, zitala (Gazt. *calamidad*)
Kazkagorra	kaskagogorra
- M -	
Matxardea	matxarda, maiseatzailea, mihiluzea, sorgina (emakumeei esateko erabiltzen da)
- N -	
Narratsa	narrasa, txukuntasunik gabea
- P -	
Petrala	petrala, zitala

Pulamentu exkaxekoa	fundamentu edo ganora gutxikoa
- S -	
Saltserea	bazter-nahaslea (Gazt. *salsera*)
- T -	
Tuntune	tuntuna
Txatxue	txatxua, ganoragabea
Txepela	txepela, koldarra
Txotxoloa	txotxoloa, ergela
- X -	
Xelebrea	xelebrea, bitxia
- Z -	
Zipriztiñe	zipriztina, pertsona errea; jenio bizikoa
Zozoa	zozoa, inozoa

Aldaerak:

- A -	
Afaittea	afaritara
Agarra	adarra
Agotza	arotza
Aizken	azken
Alamodukoa	halamoduzkoa
Alamuzkoa	halamoduzkoa
Alan	ahala
Arramarioa	armarioa, armairua
Arrandera	emakumezko arrain-saltzailea, arrainduna
Atakera	irteera
Atsalden	arratsaldean
Atzena	azkena
- B -	
Bazkaittea	bazkaritara
Bearrekoa	beharrezkoa
Beize	berriz ere
Bela	berehala

Bittu	bildu
Bitxurre	bidezidorra
- E -	
Ebie	euria
Egoia	hego haizea
Elbie	eulia
Euntsie	erauntsia
- G -	
Gaiñantzin	gainerantzean, gainerakoan
Gaiñeantzen	gainerantzean, gainerakoan
Gaiñetikon	gainerantzean, gainerakoan
Gaiñontzen	gainerantzean, gainerakoan
Gar	gaur
Gazta, gaztaia	gazta
- I -	
Idari, irari	igeri
Izoa	izeba
- J -	
Jeneal	normalean, jeneralean
- K -	
Kafesenea	kafesnea
Karri	ekarri
Keiza	gerezia
Kurpille	gurpila
- L -	
Laixter	laster
Lorie	lodia
- M -	
Makutsen	mauka hutsetan
Men, emen	omen
- O -	
Osiñe, asune	asuna (landarea)
Osoa	osaba

- P -	
Paeta, paittea	pareta
Pantoloi	praka, galtza
Prantata, prantau	prestatu(ta)
- T -	
Talotesnea	talotesnea, taloa eta esnea
Txerremenea	txermena
Txuloa	txuloa, zuloa
- U -	
Udaizkena, udatzena	udazkena
Urdun	orduan
- X -	
Xorra	gorra, sorra

E S A P I D E A K

ESAPIDEAK

Hizkuntzaren sena galtzea, erdaratiko kalkoak erabiltzea,... esapideak murriztearekin bat etorri ohi da. Zaldibiako hizkeran nabarmena da adinekoen belaunalditik gazteen belaunaldira egon den aldaketa: batetik, esapideen galera edo murrizketa antzematen da, eta bestetik, gazteek euskaraz esapiderik sortzeko berezko senik ez dutenez, erdarazkoak erabiltzera jo ohi dute.

Adibideotan, esapideekin batera badira esaera zaharrak ere. Ez dugu, ordea, saiakera berezirik egin esaera zaharrak biltzeko. Hiztunekin izandako elkarrizketetan irten diren esaera zaharrak dira, beraz, hauek, eta atal honetan sartzea erabaki dugu.

Badira aditzondoak ere, eta zenbaitentzat lexikoan egokiago leudekeen hainbat esapide ere bai. Guri, ordea, aberasgarri iruditu zaigu guztiak hemen sartzea, eta beharrezko izan denean beren testuinguruan eskaini ditugu.

Zaarragoa bastantez e "askoz ere zaharragoa"

Egie esate'izut animati "egia esaten dizut arimatik"

Amairu sufrittu "hamahiru sufritu; asko sufritu"

Amaika near in / amaika aldiz "hamaika negar egin; negar asko egin / hamaika aldiz; askotan"

Burutik in tzitzaion "burutik egin zitzaion; erotu egin zen"

Eztiat begi onez ikusten "ez diat begi onez ikusten; ez zaidak ondo iruditzen"

Ikara biziñ "ikara bizian; oso beldurtuta"

An bazkalduta jator "han bazkalduta, jator!; han ederki bazkalduta"

Ez-ittekoa "ez-egitekoa; okerra, ezbeharra"

Gogo txarreti "gogo txarretik; gogoz kontra; gogo gutxirekin"

In tzon modue ni an sartzeko "egin zuen modua ni han sartzeko"

Alakoxe larrie euki "halakoxe larria eduki; larritasuna eduki"

Egoaldi gozoa "eguraldi gozoa, ederra"

Ilda jotzen giñuzten "hilda jotzen gintuzten; hilda geundela uste zuten / hilda jotzen genituen; hilda zeudela uste genuen"

Lear inda eon "leher eginda egon; oso nekatuta egon; porru eginda egon"

Porru inda eon "oso nekatuta egon; leher eginda egon"

Saltzea ata (etxek) "saltzera atera; saltzen jarri"

Gorputzen gañen "gorputzaz"

Soinue inpernuko auspoa zala "esku-soinua infernuko auspoa zela; txarra zela"

Oska aittu "hoska aritu, hots egiten aritu, deitzen aritu"

Gorputzez aundi giñen ia "gorputzez handi ginen; heldu gorputza geneukan"

Azítako iñor ez gare "hazitarako inor ez gaude; edonola ere hil egingo garela arrazoitzeko"

Beantzat onik ez, ta bestentzat kaltea! "berarentzat onik ez, eta besteentzat kaltea"

Katibu zare an (soldaduskan) "gatibu zaude han; ez duzu askatasunik"

Agiñeko miñez puskatzen "hagineko minez puskatzen; izugarrizko hagineko minarekin"

Zaildutako emakumea da oi "lan asko egindakoa da; bizimodu gogorra izandakoa"

Gizon zimela da "gizon argala eta zaildutakoa da"

Ari zimelagokin indakoa emakumea beti "emakumea hari zimelagoarekin egindakoa beti; emakumea iraunkorragoa, finagoa dela esateko"

Ari luzekoa da emakumea "hari luzekoa da emakumea; bizi luzekoa da emakumea"

Astero ostielea pasatzet nik e! "astero ostirala pasatzen dut nik ere!; momentu ez hain onak ere pasatzen dituela esateko"

Krixto-etxeti "oso urrutitik, Kristoren etxetik"

Artzaiek ardi-maittea bear do izan "artzainak ardi-maitalea izan behar du beti; artzainak ardiak maitatu egin behar ditu derrigorrez"

Bakarra motxa da "bakarra motza da; bakarra gutxi da"

Udak geienen beakin do leortea "udak gehienetan berarekin du lehortea; udan lehortea ohikoa da"

Bearrak eakutsi ziñ "beharrak erakutsi zidan"

Diosola in, atsaldeona eman "diosala egin; arratsalde onak eman; agurtu"

Desonraik ez eman "desohorerik ez eman"

Aizatzeko muko personajek "haizatzeko moduko pertsonaiak; aparteko zerbait egin duten pertsonak"

Zuzen ibilita re badie lanik asko! "zuzen ibilita ere bada lanik asko; zuzen ibilita ere nahiko lan izaten da"

Bota'ittuten birauek itsatsiko balie, akauko'uzke erdik "bota ditudan biraoak itsatsiko balira, akabatuko hituzke erdiak; bota ditudan biraoek eragina izango balute, hilko lirateke erdiak"

Euzkie goizen atatze'an bezelaxe, garaien garaiko kontuk "eguzkia goizean ateratzen den bezalaxe, garaian garaiko kontuak; garai bakoitzean garai horri dagozkion kontuak"

Jainkok dakiñ ainbe biaje "Jainkoak dakien hainbat bidaia"

Makillek jotako zakurrek bezela aldein non "makilak jotako zakurrak bezala alde egin nuen; burumakur alde egin nuen"

Zorioneko begi okiñ "zorioneko begi hauekin; hainbeste buruhauste ematen

LENGO LEPOTI
DAUKUE
BURUE

duten begi hauekin”

Ok, umeok, inpernuk e eztittu artuko! "hauek, umeok, infernuak ere ez ditu hartuko!; oso gaiztoak dira"

Ni ez neon eztaietan, ni nee lanen "ni ez nengoen ezteietan, ni nire lanean; lanean ari nintzen, arreta galdu gabe"

Putzun bustitako oilloa bezela "putzuan bustitako oiloa bezala; oso bustita"

Burun jotako sugea bezela "buruan jotako sugea bezala; tontotuta, moteldu-ta"

Amak indako trajekiñ jarri giñen danok "amak egindako trajearekin jarri ginen denok; biluzik"

Eune zaaldu arte "eguna zabaldu arte; eguna argitu arte"

Beartu zan nereana "niregana behartu zen; niregana etorri beharra izan zuen"

Etxekonai onik ez ematekatik, arrek! "etxekonekoei onik ez emateagatik, hark!; besteren ona ez ikusteagatik"

Gosek eztik txantxaik "goseak ez dik txantxarik; goseak egotea txarra eta larria da"

Txakurre jateko apetittukin "zakurra jateko gosearekin; edozer gauza jateko gosearekin"

Jango nittuzke ezek eta igarrak "jango nituzke hezeak eta igarrak; edozer gauza jango nuke"

Ortzak atata neon ni, e! "hortzak aterata nengoen ni, e!; ez zela hain inozoa, hain umea"

Ue re kitto geittu zan "hura ere kito gelditu zen; hura bukatu zen"

Putzek ezto erreko "putzak ez du erreko; urduritasunak ez du galduko"

Eriok begi argik! "herioak begi argiak; pertsona egoera larrian dagoenean, edozer gauza egiteko gai da"

Amaik eztaun etxea illunpetan dau beti "amarik ez dagoen etxea ilunpetan

BAI,...
ARI ZIMELAGOKIÑ INDAKOA EMAKUMEA BETI.

dago beti; amarik gabe, fundamentu gutxi etxean”

Esan in bear do oi, e! "esan egin behar da hori, e!; hori esatea ere!"

Belarrik makurtuta aldein tzon "belarriak makurtuta alde egin zuen; burumakur alde egin zuen"

Aitzeraik ez al dezue? "aditzerarik ez al duzue?; entzuterik ez al duzue?"

Oixe ez nizuke esango; enaiz akordatzen "horixe ez nizuke esango; ez dut gogoratzen"

Jo ta fuego aittu bearra izan gendun lanen "jo eta su aritu beharra izan genuen lanean"

Senperrenak ikusi giñuzten! Gorrik ikusi giñuzten! "senperrenak ikusi genituen; gorriak ikusi genituen; asko sufritu genuen"

Esku bat botatze´it, ta eskerrak! "esku bat botatzen dit, eta eskerrak; laguntzen dit, eta eskerrak!"

Itze artze´izut, e! "hitza hartzen dizut, e!; zuk esandakoa kontuan hartuko dut"

Ume zar onekin eztet karreraik atatzen "umetzar honekin ez dut karrerarik ateratzen; ez dut gauza onik egingo ume honekin"

Seko lo geitze naiz bazkal ondoenen "ziplo gelditzen naiz bazkal ondoren; lo sakonean gelditzen naiz bazkal ondorenean"

Ari bota nion begie, baiño galesti xamarra zan "hari bota nion begia / hura gustatu zitzaidan, baina garesti samarra zen"

Ibillin-ibillin gue etxen bukau zon "ibilian-ibilian gure etxean bukatu zuen; azkenean gure etxean bukatu zuen"

Apustu ingo nuke eztala etorriko "apustu egingo nuke ez dela etorriko"

Orrek bat e ezto balio, neska! "horrek ez du batere balio, neska!"

Zakurren ipurdiñ pasa niñuen "zakurraren ipurdian pasatu ninduten; ez zida-

JOXEPA CORLEONE ILL OMEN DA, BA !...
BAI, ON JOXE-MARTINO,...
AZÍTAKO IÑOR EZ GARE !...

ten batere kasurik egin”

Ezerrez ta festa “ezer ez eta festa; ezerezetik zerbait handia egitea”

Urte askotako "urte askotarako; zorionak"

Gabon pasa "gabon pasa"

Eskarrikasko "eskerrik asko"

Milaka eskerrak "mila esker"

ERREPIKAPENAK

Arren da arren "mesedez"

Beiñ eo beiñ "behin edo behin"

Faborez ta faborez "mesedez; arren"

Iñoiz-iñoiz "noiz edo noiz; noizbait"

Mintxo-mintxoa / mintzo-mintzoa "(pertsona) zorrotza, jenio bizikoa"

Nola izango ta ala izango "nola izango ote, eta..."

DENBORAZKO ESAPIDEAK

Aiketa...arte "harik eta...arte"

Alaba gaztena izan non ondoenen,... "alaba gazteena izan ondoren"

Natorren arte "natorren arte"

Lenbiziko arte "lehenbizikora arte"

Oaindik oaiñ "oraindik orain, orain dela gutxi"

Bi eunen barrun "bi egunen barruan; bi egunetan"

Oaiñ lau urte "orain lau urte"

TIRRIN RIN
%
FFSSS
!
AI BERROI MILLA DEMONIO !...

BAT-BATEKO ESAPIDE ADIERAZKORRAK

A or! "hara hor!"

Orra! "horra!"

Orratio (re)! "horregatik ere!, behintzat!"

Demonio lotsagabea! "demonio lotsagabea!; deabru lotsagabea!"

Gauza politte pranko izaten tzan! "gauza polit franko izaten zen!"

Ai berroimilla demonio! "ai berrogei mila deabru!; Ai Jesus!"

Zer da, ta boseadorea! "zer da, eta boxealaria! zer izango ote zen, eta boxealaria!"

Etzazuela gertau, e! "ez dakizuela gerta!; ez dakizuela horrelakorik gertatu!"

Ze moxtadea, e! "ze moztasuna, e!"

Ainbeste umekin nola burutu etxen! "hainbeste umerekin nola burutu etxean!"

Etzien nai orduko pasau! "ez ziren nahi orduko pasatu!; luze egin zitzaigun"

Ene! Auskalo zenbat urte pasa dien! "ene! auskalo zenbat urte pasatu diren!"

Lana beltz in bear, ze erremedio! "lana beltz egin behar, zer erremedio! lana gogor egin behar, derrigorrez!"

Oixe, ze uste'zue, ba, zuek? "horixe, zer uste duzue, ba, zuek?"

Bueno, noiz asi bear deu? Ni pronto "beno, noiz hasi behar dugu? Ni prest"

Bearko jun, besteik etzan da! "beharko joan, besterik ez zen eta!; ze erremedio, joan egin behar!"

Motel-motel, etzak olakoik esan! "mutil-mutil, ez ezak horrelakorik esan!"

Arek ezezkoa esan tzon, ta kitto! "hark ezezkoa esan zuen, eta kito!"

Beiñ ue buka ezkeo, or konpon! "behin hura bukatuz gero, hor konpon!"

Bai zea! Oi nola izango´a, ba! "bai zera! Hori nola izango da, ba!"

Arek alde in tziun, da izorrai! "hark alde egin zigun, eta izorra hadi!; izorratu egin behar!"

Ene, jakin tzazu! "ene, jakin ezazu!; nork daki!"

Ingo ezto, ba! "egingo ez du ba!; egingo du, noski!"

Bai etorri re! "bai etorri ere!; eta etorri egin zen"

Bai dotore asko! "bai dotore asko!; oso dotore"

Jutea asko do! "joan dadila!"

Ata kontuk, e! "atera kontuak, e!"

Jesus, Maria ta Jose! "Jesus, Maria eta Jose!"

Nola ez pa! "nola ez, bada!; bai, noski!"

A Jangoikoa! "a Jaungoikoa! ai ene!"

Au da mixerie! "hau da mixeria!; hauxe da egoera txarra!"

"Galestie zan ordun?" "Galestie, kuanto!" "garestia zen orduan?" "garestia, kuanto!; garestia, noski!"

Oi ta orrenbestez eztizue utziko sartzen, e! "hori eta horrenbestez ez dizue utziko sartzen, e!; hain erraz ez dizue utziko sartzen!"

Saldak eta mariaxantiximak! "saldak eta Maria Santisimoak!; ...eta komeriak!"

Parranda ingo zendun! "parranda egingo zenuen!; nola egingo zenuen, ba, parranda!

ZUZEN IBILITA 'RE
BADIE
LANIK ASKO
DUNBA

ESAERA ZAHARRAK

Alperkeriti jaten donak lanik eztauke in bearrik
Alperra izanda bizimodua aurrera ateratzen duenak ez dauka lanik egin beharrik.

Arramarioa, oia ta kutxe, nee alaban dotea eztek utse!
Armarioa, ohea, eta kutxa, nire alabaren dotea ez duk hutsa!

Atako´izkik babak eltzetik
Inork egin gabekoak, izugarriak, horrek egingo dituela.

Belak asi ziela arrimatzen eta ártok laxte jango ote zuen!
Apaizak inguratzen hasten direnean, heriotza iristen da.

Esne pertza laratzen eta alaba etxen / esnea eosten eta alaba eon tzeilla etxen / euzkie aitzen, esnea laatzen eta neska itxen
Eguzkia ezkutatzen denerako, esneak laratzean behar du, eta alaba gazteak etxean.

Gerraik obena baiño pakeik txarrena obea da
Gerrarik hoberena baino bakerik txarrena hobea da.

Goizeko oskorrie illuntzeako ebie
Goizeko oskorria, iluntzerako euria.

Latiñez, eta guk bate jakin ez
Latinez, eta guk batere jakin ez.

Lengo lepoti daukue burue
Ez dira batere aldatu.

Majiñat euzki artu bear da, ta itzalen eun asko pasa bear da, orreaiño allatzeko
Zahartzarora iristeko denetik pasa behar da.

Olkik ordaiñetan
Egindako kalteak erantzuna izaten du beti.

Txerri gosek ezkurre ames itte men do
Zerbait falta duenak hori lortu nahi izaten du.

Zakurrek ankutsik an e
Han ere beste lekuetako gabeziak daude.

Zozok belei (ipurbeltz)
Pertsona batek besteari zerbait aurpegiratzen dioenean, bera ere horrelakoa dela adierazteko erabiltzen da.

ZENBAIT ADITZEN ERABILERA BEREZIA

Maite / nahi:

Zaartzea ta maittego bear do izan personek "zahartzaroan maitasun gehiago behar dute pertsonek"

Oso matte nau "asko maite nau"

Oso mattek zien atte-semek "elkar asko maite zuten"

Asko matte izate niñun "asko maite ninduen"

Jendek nai diu, beñepeiñ "jendeak maite gaitu, behintzat"

Iñoi nai izaten eakutsi zien "jendea maitatzen erakutsi zioten"

Bata bestei eztiu nai "ez dugu elkar maite"

Urteak / adina:

Laroita beatzi urte jo zittun "laurogeita bederatzi urtera iritsi zen"

Laroi urte oaiñ ingo zitzaion ari "orain beteko lituzke laurogei urte"

Emezortzi urte in tzat "hemezortzi urte pasatu zaizkit"

Gue tamaiña etorriko bazeate… "gure adinera iritsiko bazarete..."

Aurten berroita bi urte etorriko die, etxe oi ein gendula "aurten berrogeita bi urte beteko dira..."

Ze gizon modu da au? ze edadetakoa? "Zenbat urte ditu gizon honek?"

Zenbat edade aukezu? "zenbat urte dituzu?"

Edade aundikoa "adinekoa"

Gertatu:

Ilda gertau "hil"

Saldu barren gertau men tzan "saldu beharra izan"

Etorri:

Gaztek eztie ondo etortzen zarrakiñ "moldatu, elkar ulertu"

Egin:

Bakik zenbat bide in deun? "badakik ze bide luzea egin dugun?"

Andrek ondo itteit "andreak ondo zaintzen nau"

Ibili:

Gerra zebillen denboran "gerra denboran"

Akordatu:

Ez naiz akordatzen "ez naiz gogoratzen"

Eztet akordatzen "ez dut gogoratzen"

Eztauket gogon "ez dut gogoan"

Akordatzen tzat "gogoan dut"

Izan:

Erriko personak nor balie "herriko pertsonek gizalegez jokatu izan balute"

Zalea zan ikeragarrie "oso zalea zen"

Diru otsekok izan "aberatsak izan"

Buruti jantzie etzan "ez zen guztiz normala"

Gue aittona zana etzan atzo goizekoa "oso zaharra zen"

Altxatzeko ez naiz gauza "ez naiz gai"

BESTE ESAPIDE BATZUK

Haurdun:

Familie izateko naula "haurdun nagoela"

Umen esperon tzeola "umearen esperoan zegoela"

Gertatu zan sabelaundi "sabelandi gertatu zen"

Estadun gertau zan "haurdun gertatu zen"

Kontu:

In tzaun kontu "eman dezagun"

Kontu izan! "ez ahaztu"

Barrioi kontu itteko "auzoa zaintzeko"

Hutsa:

Milla erreal, utse baiño obea dek! "mila erreal, ezer ere ez baino hobea duk!"

Uts ein badeu, barkau "huts egin badugu, barkatu"

Utsekin lotsatze giñen "hutsarekin lotsatzen ginen"

AZENTUA

A Z E N T U A [2]

Zaldibian, Goierri gehienean bezala, [+2] azentuera dugu oro har; hau da, azentua hitzaren ezkerretik hasi eta bigarren silaban jartzen da (*eskúe, ezúrre, etxéa, tximístea, ittúrrie, abéndue...*). Kasu berezi batzuetan [+1] agertzen da, kokapen honek azentuera markatua eraginez (*sémea).*

Aditzaren forma jokatugabea, izenak/izenondoak, hitz eratorriak eta maileguak, guztiak azaldu beharko genituzke Zaldibiako azentuera modu osatuan agertzeko. Azken horietan (maileguetan) topatu ditugu daturik esanguratsuenak, ordea, eta beraietan luzatu nahi genuke gehien. Gainerako atalei dagokienez, bat gatoz Jose Ignacio Hualdek (1997) Beasaingo azentuerari buruz azaltzen duenarekin.

Aditz partizipioetan, salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita, azentua bigarren silaban ezartzen da gehienetan (*artúko*), baina hiru silaba baino gutxiagoko erroekin[3], /-tze/ atzizkidun formetan, azentua lehen silaban doa (*ártzen*).

---

[2] Bi adiera izan ditzake azentuak: 1) ad cantus-etik gertuago dagoena bata; doinu gora-beherak, erritmo-unitateak, etab. aztertzen dituena (hau aztertzeko tresneria egokia behar da). 2) J.I. Hualdek (1997) bere lanean erabilitakoa da bestea, gehienean nagusitu ohi dena:

> *Azentua ez da segmentuei dagokien tasun bereizgarri bat, baizik eta eremu edo unitate batean silaba jakin bati ematen zaion prominentzia edo nagusitasun prosodikoa* (6.or)

Guk ere azentua ildo beretsutik erabili dugu atal honetan. Hala ere, azentua ez da hitzei dagokien kontua; guk diskurtsoak ditugu, eta ez hitzak soilik. Atal honetan hitzak erabili ditugu, bestela ez bailuke mugarik izango lanak. Baina, gai honen inguruan ere badagoela zer landu eta zer osaturik nabarmendu nahi dugu.

[3] Azentuaren atal honetan erabiliko den terminologia azaldu nahi dugu, bertan esaten dena jarraitzea zail gerta ez dadin:

- erroa: hitzaren muina, funtsezko esanahia daraman morfema. Hitzari aurrizki, artizki eta atzizki guztiak kendu ondoren geratzen zaion zatia. Adib., *saskiarekin* eta *saskigilea* hitzetan erroa *saski* da. Aditzean, berriz, *etortzen*-en erroa -*tor*- da, *ikusten*-en erroa -*kus*- da eta abar.
- aditz-oina: *edin eta *ezan aditz laguntzaileen bidez eratutako aditz perifrastikoetan aditz nagusiak hartzen duen aspektu markarik gabeko forma. Adib., *hartzen*-en aditz-oina *har* da, *ikusi*-ren aditz-oina *ikus* da.
- partizipioa: aditzaren forma ez-jokatua, adjektibo eta izen bezala joka dezakeena (adib., *esan, ikusi, hartu, bota,* etab.).
- hitza: hizkuntza batean esanahia duen forma beregain txikiena (adib., *mahai, ate, zuhaitz, lagun,* etab.).

Izenen azentueran, Gipuzkoako beste hizkera batzuetan bezala, oinarriak bi edo hiru silaba dituenean, kasu orokor eta markatugabean, azentua bigarren silaban doa singularrean (*zakúrre, sagárra, izárra, ezúrre, alába, tximístea,* etab.) eta lehen silaban pluralean (*zákurrek, ságarrak, ízarrak, álabak, txímistak,* etab.). Zaldibiako azentuera markatugabea, beraz, [+2] da, eta kasu berezi batzuetan [+1] azentuera erabiltzen da:

[+1]: a) erroa silababakarrekoa denean: *lúrretio*

b) erro markatuekin: *sémea*

c) partizipio inperfektiboetan aditz-oina silababakarrekoa edo bisilabaduna denean: *étortzen*

d) erro bisilabadunen eta bokalez amaitutako hirusilabadunen pluralean: *zákurrek*

Hitz elkartuetan, berriz, ez dirudi arau bat bila daitekeenik. Konposatuetan joera batzuk ageri dira, baina salbuespen ugari ere bai. Hitz elkartu eta eratorri askok lehen silaban daramate azentua, baina ez guztiek: *báserrie, txérrikie / zazpígarrena, begíokerra*.

Maileguak egokitzeko azentu arauak jorratuko ditugu jarraian. Bi silaba baino gehiagoko maileguak egokitzeko erabiltzen diren azentu arauak modu honetara laburtzen ditu Hualdek:

a) [...o o ó...] > [o ó...] (*tenedór* > *tenédorea*)

Erdal hitzean azentua bigarren silaban baino eskuinalderago badoa, bigarren silabara mugitzen da. Salbuespenik gabe.

b) [ó o o] = [ó o o] (*plátano* > *plátanoa*)

Hirusilabadun proparoxitonoen azentua ez da aldatzen. Salbuespenik gabe.

c) [...ó o o] > [ó o o...] [-3] > [+1] (*teléfono* > *télefonoa*)

Lau silaba baino gehiagoko hitz proparoxitonoen azentua lehen silabara mugitzen da. Salbuespenik gabe hiztun zaharren hizkeran.

d) [o ó o] > [ó o o] [-2] > [+1] (*artísta* > *ártistea*)
Hitz hirusilabadun paroxitonoen azentua lehen silabara mugitzen da. Salbuespen asko; joera baizik ez da.

Mailegu bisilabadunetan, berriz:

a) Mailegu bisilabadun oxitonoak: maileguen jatorrizko azentuera gorde da normalean, azentua bigarren silaban hartuz: *balcón* > *balkója*[4]. Kontsonantez bukatzen ez direnak gutxi dira: horietan azentua atzeratu egiten da: *café* > *káfea*.

[4] Lanaren atal honetan <j> kontsonanterdia eta <i> bokala grafikoki desberdin adieraziko dira, silabak zenbatzeko baitaezpadakoa delako.

b) Mailegu bisilabadun paroxitonoak: [ó o]

Ez dago eredu garbirik: batzuetan mantendu, bestetan erregulartu: *frésco* > *preskóa / bólsa* > *póltsea*.

Bi silaba baino gehiagoko maileguen a) ereduari heldu nahi diogu hemen. Hori bera da Zaldibiako azentueraren joera ere, oro har. "*Beasainen, Arantzan eta Oñatin bezala, bi silabako leiho bat dago azentua ezartzeko. Azentuak hitzaren lehen bi silabetariko batean joan behar du. Murriztapen hau guztiz orokorra da"* baieztatzen du Hualdek, salbuespenik aipatu gabe. Zaldibian, ordea, hiztun helduen azentuerari arretaz erreparatu ondoren, salbuespenak egin beharrean gaudela esango genuke. Hiztun helduetatik askok agertu dute maileguetan azentua hirugarren silabara eramateko joera (gazteetan ageri ez dena), eta hau aztertzen saiatu gara ditugun datuez baliatuz.

Ezer baino lehen, hiztun bakoitzak agertu dituen adibide saila zerrendatu nahi genuke gure hipotesien erakusgarri izan dadin:

(Mikaela Nazabal):

3. silaban: *nerbjosídaden, aguazílle, kariñósoa, indizíoa, infezíoa, inpresíoa, barriñója, nobedádejk, karnizérin, estazíon, pasadóren, makinérie, atentzíoa, kamiónen, derriórren, salbazíojk, entreténitzen, jeneálen, dependíenta, manifféstau da, antibjótikok, kamisója, ospitálen, Bartzelónan, Samaníego, Presentázionen ama*

Mailegu ez direnekin: *arrokériz, zorióneko*

Izen bereziekin: *Donostía, Donostíti, Donostíko, Saturdía, Saturdíkoa, Saturdíñ*

BAT zenbatzailearekin: *begibáteako, atebáteti, txoriáten, gajxobátekiñ, koartobáten, majiñát (bazkari)*

4. silaban: *kontestazíoa, zirkulazíoa, konformidádejk*

(Pepita Mendizabal):

3. silaban: *afizío, kondizío, relojériñ, insepárablek, konformídadea, abilídade, kamixója, fisgonéatzea, manifféstaldik, razjonámentue, organízatzen, derriórren, ermentájtzatik*

Izen bereziekin: *Donostíko*

4. silaban: *fabrikazío*

(Eleuteria eta Frantzisko):

3 silaban: *estazíon, kongregázioti, txanbolínterok*

Mailegu ez direnekin: *beetigóra*

Izen bereziekin: *Donostía, Donostíñ*

(Maria Irastortza):

3. silaban: *eskarméntauta, negozía gendun, Donanízeto*

(Maria Garmendia):

3. silaban: *kongregázioti, prozesíoa*

4. silaban: *edukazíoa*

(Roxa Atxaga):

3. silaban: Mailegu ez direnekin: *mozkorrútse*

BAT zenbatzailearekin: *urte(b)áten*

(Frantziska Mendizabal):

3. silaban: Izen bereziekin: *Donostía, Donostíti*

(Esteban Mendizabal):

3. silaban: *salbazíoa, kalidádea, sakristáuej, bedejnkázioa, amenázatuna, sakrifí-katzen, abitáziotati, karretéran, San Martíñen, San Bartólome*

Mailegu ez direnekin: *arrokéritik*

Izen bereziekin: *Donostía*

BAT zenbatzailearekin: *pekatári bat, bidebáteti*

4. silaban: *endemoníatu, obligazíoa*

(Joxe Ibarguren):

3. silaban: *sublebázioko, ameríkanoa, garrafója, entreténitzeko, ajuntámentuko, jeneálen, inaugúratzeko, arratója, almazéna,*

BAT zenbatzailearekin: *aldebáteti, etxebáteti*

(Pedro Aierbe):

3. silaban: *libertádejk*

Izen bereziekin: *Donostíñ*

(Julian Gurrutxaga):

3. silaban: *erreméntarik*

Izen bereziekin: *MartiñÁundiñ*

BAT zenbatzailearekin: *urtebáten*

4. silaban: *PrantxikoJábier*

(Damian Olano):

3. silaban: *promozjónatu, ameríkano, txanbolínterok, zapatérikok, JoxeMíelen*

BAT zenbatzailearekin: *eskubáten*

(Miel Antonio Sukia):

3. silaban: *konpittérie, arrazója, almazénen, kapitánbaten, estazíoti*

Mailegu ez direnekin: *etxekóandrea, emandíola, nekazáritzan, ba(da)kíala*

BAT zenbatzailearekin: *etxebáten*

4. silaban: *etortzentzíenen*

(Joxe Azurmendi):

3. silaban: *estudíantek, operázioa*

Mailegu ez direnekin: *ezin néjkela*

(Joxe Arrese):

3. silaban: *amistáde*

4. silaban: *afusilámentujk*

1. azentuera ereduan barneratu ditugu azentua hitzaren hirugarren silaban edo laugarrenean (hau da, [+3] eta [+4]) agertzen duten adibide hauek guztiak.

Azentuera ereduez ari garenean, azentua hitzaren zenbatgarren silaban doan begiratuz egindako behin-behineko sailkapenaz ari gara; azentua txertatzeko norabidea eta silaba erabili ditugu, beraz, irizpide modura[5]. Lan honetarako erabiliko dugun lehenengo ereduan, esate baterako, azentua hitzaren hirugarren ([+3]) edo laugarren ([+4]) silaban daramaten hitzak barneratu ditugu. Bigarren ereduan, berriz, azentua hitzaren lehen silaban ([+1]) daramaten hitzak agertu ditugu. Eredu bakoitzean salbuespenak edota belaunaldiz belaunaldiko diferentziak agertzen eta kontrastatzen ahalegindu gara, ahal denean hipotesi bat gauzatzera iritsiz[6].

Lehenengo ereduan, beraz, adineko askok azentua hitzaren hirugarren (edo laugarren) silaban eramateko joera agertu dute (*kamisója, konformídadea, Donostía* -adizlaguna-*, arrokérie,* etab.); gazteek, berriz, [+2] azentukera erakusten dute hitz hauetan azentua hitzaren bigarren silaban agertuz. Aldaketa, ordea, gazteetara iristerako helduen azentueran gertatua dagoela esango genuke: 50-70 adin tarteko hiztunek ez dute azentua hitzaren hirugarren (edo laugarren) silaban gordetzeko joerarik, eta gazteek bezala [+2] azentukera agertzen dutela dirudi (adb.: *karíñosoa, indízioa, Donóstia* -adizlaguna-, etab.).

Bigarren ereduan, berriz, adineko askok azentua lehen silaban agertuz erroa markatzeko joera duten adibideak aurkeztu ditugu (adb.: *txántxangorrie, éuskaldune, érdikok, Ítsasondokoa,* etab.). Gazteek azentua bigarren silaban eraman ohi dute adibide hauetan ere (adb.: *txantxángorrie, euskáldune, erdíkok, Itsásondokoa,* etab.). 50-70 urte inguruko helduek azentua lehen silabara agertzeko gazteek baino joera handiagoa dutela iruditzen zaigu; orain artean jaso ahal izan ditugun adibide batzuk hauek dira: *gójti bera, érritarrak, májetzen* 'maiatzean', etab. Baina hauen ondoan azentua bigarren silaban daramaten adibideak ere asko dira: *euskáldune, galdétu zion,* etab.

[5] Azentuera ereduak finkatzeko irizpideak J.I. Hualderen (1997) lanean oinarriturik zehaztu ditugu.

[6] Azentueren gaian bi deskribapen ezberdin aurkeztu ditugu orain artean, eta beharrezko deritzogu deskribapen bata bestetik garbi bereizteari, nahasgarria izan ez dadin: gauza bat da Goierrin, oro har, bi azentu eredu nagusi egotea, Goierriko [+2] orokorra eta markatua den [+1], eta beste gauza bat da gure lanerako bi azentu eredu izatea emankor, [+3/+4] delakoa, batetik, eta [+2], bestetik.

TRATAMENDUAK ZALDIBIAN

TRATAMENDUAK ZALDIBIAN

AURKEZPENA

Euskal Herriko herri askotan bezala, gurean ere hitanoaren erabilerak garai batetik hona atzera egin du. Hala ere, gazteen artean hika egiteko ohitura ez da erabat galdu, eta horrek berak bultzatu gaitu erabilera hau aztertzera. Batetik, gazteek hitanoa ondo erabiltzen ote duten jakin nahi izan dugu: forma egokiak erabiltzen ote dituzten. Bestetik, tratamendu honek orain arte izan duen erabilera esparrua aldatu ote den –edo aldatzen ari ote den– aztertu nahi izan dugu: gazteek hitanoa noiz erabil daitekeen ba ote dakiten, alegia.

Horretarako, inkesta bat prestatu dugu Zaldibian adin-tarte guztietako hiztunei egiteko (*1. eranskina*). Hiru atal ditu inkesta honek: 1) hitanoa norekin erabiltzen duten; 2) hitanoaren erabileraren inguruko iritzia; 3) hitanoko adizkiak erabiltzea zuzena ez den hainbat esaldi. Inkesta hau egiteko Xabier Alberdiren lanean oinarritu gara. Esan behar da, ordea, lan-eremua ezberdina dela, eta horregatik, gure beharretara egokitu dugu.

Aurretik, ordea, atal hau hobeto ulertu ahal izateko zenbait definizio eta azalpen lagungarri emango ditugu.

Hitanoa: alokutiboa

Hitanoaren adizkera alokutiboa da, eta lagunarteko hizkerari loturik dago. Euskaltzaindiak bere gramatikan honela dio:

> NOR, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik.
>
> (EGLU-II, 1997: 387)

Hiztunak bigarren pertsona hika tratatzen du. Aditz multzoan hi-ri dagozkion markak azalduko zaizkigu (*-k* edo *-n*, funtsean).

Horrela, marka hori gehitzean adibide hau genuke: “Gizon bat etorri duk/n”. Beraz, “Etorri duk/n” “Etorri da” + “hirekin ari nauk/n” esatea da.

Lan honetan, ordea, ez dugu Zaldibian erabiltzen diren hitanozko formen bilduma egingo. Hiztunetik hiztunera aditz forma hauek nahikotxo aldatzen direla ikusirik, lan amaigabea litzateke. Aldakortasun hori, hain zuzen ere, gainbehera doan fenomeno baten ezaugarria da; hitanoko adizkiek ez dute zukako formen tankerako tinkotasunik. Bestalde, Euskaltzaindiak aditz alokutiboaren batasunerako formak argitaratu ditu (EGLU-II, 1997: 391). Guk, aipatutako aldakortasun hori dela eta, ez dugu inolako paradigmarik eskaini nahi izan. Gainera, forma hauek gehienbat ahozko hizkeran dira erabiliak eta, horrenbestez, herri batetik bestera alde handi xamarrak gertatzen dira.

Zuka

Hitanoaren aurrean, askorentzat erregistro bakarra den neutroa edo eztabadakoa dugu. Zukako tratamendu neutroak ez du balio berbera euskalki guztietan: lapurteraz edo gipuzkeraz, esate baterako. Gipuzkoan, eta beraz Zaldibian, balio neutroa du gaur egun eztabadako erregistroak eta hitanoaren erabilerari erabat nagusitzen zaio.

Berorika

Hego Euskal Herrian gaztelaniaren eraginez (berez, honen forma baten kalkotik eratorrita), bada errespetozko beste forma bat, hizketa lagunari BERORI esaten zaiona.

Hemen ez dago alokutiborik, baina tratamendua bigarren pertsonari ematen bazaio, bigarren pertsona hori “nor”, “nork” edo “nori” denean, aditzak komunztadurari dagokionez, hirugarren pertsona bezala jokatzen du. Gaztelaniaren “Usted” tratamendua eta “Berorikakoa” pare-parekoak dira.

Beraz, euskarak hiru erregistro ditu:

Jasoa	Berorika	*Don Martiñ, ondo iruitze al tzaio?*
Neutroa	Zuka	*Jun barko’zu, ba, etxea!*
Lagunartekoa	Hika	*Etorri ai seittun onea!*

HITANOA NOIZ ERABILI. GRAMA TIKA ARAUAK

Euskaltzaindiak aditz alokutiboen inguruan emandako oharra gogorarazi dezagun lehendabizi:

> Badira, izan, testuinguru sintaktikoak ezartzen dizkigun debekuak. Adibidez, badirudi erabilera jatorrenari jarraituz behintzat, perpaus txertatuetan ez dela forma alokutiborik agertzen ahal.
>
> (EGLU, 1997: 391)

Euskaltzaindiaren araua aintzat hartuta, menpeko perpausetan ez luke forma alokutiborik azaldu behar; ahozko erregistroan, ordea, azaltzen da. Hauek dira kasuak:

- Baldintzazkoak: **Etortzen badek, ikusi nai diat.*[7]
  Etortzen bada, ikusi nai diat.

- Denborazkoak: **Etortzen dekenen, esaiok deitzeko.*
  Etortzen danen, esaiok deitzeko.

- Erlatiboak: **Oaiñ etorri denana nere osaba den.*
  Oaiñ etorri dana nere osaba den.

- Kausazkoak: **Eztek etorri, nai etzialako.*
  Eztek etorri, nai etzolako.

- Konpletiboak: **Eztiat uste etorriko dekenik.*
  Eztiat uste etorriko danik.

Ez dirudi oso txukuna denik alokutiboa zenbait perpaus motatan erabiltzea ere. Beste kontu bat da, noski, erabilerarena. Esaterako:

- Galderazkoetan: **Mikel etorri al dek?*
  Mikel etorri al da?

Zaldibiako hizkeran forma hauek nola erabiltzen diren jakiteko bederatzi esaldi hitanoan jartzeko eskatu diegu 47 hiztuni (*2. eranskina*). Adin-tarteka banatuta aztertuko ditugu emaitzak, hortik ondorioren bat atera daitekeelakoan. 14 urtera arte ez da hitanorik erabiltzen, oro har, Zaldibian; 12 urteko hiztun batek hitanoko aditz-formak esaten ez digu jakin. Guk bost adin-tarte bereizi ditugu: 14-20; 20-35; 35-50; 50-70; 70 urtetik aurrerakoak. 70 urtetik gorakoetan izan dugu forma hauek biltzeko arazorik handiena: erdaraz hitz egiteko bezala, erdaraz ulertzeko ere arazoak dituzte gehienek eta zenbaitetan ez dugu nahi genuen formarik jaso. Hala ere, inkestaren beste bi ataletarako baliagarria izan zaigu beraien erantzuna. Hona hemen inkestaren atal honetatik ateratakoa:

[7] Sinbolo honek (*) esaldia okerra dela esan nahi du. Horretarako, Euskaltzaindiak jatortasun irizpideak erabiltzen ditu.

a) Ezezko perpausetan gehienek erantzun zuzena eman dute; hau da, ez dute forma alokutiborik erabili. 14-20 eta 20-35 adin-tarteetako hiztunetatik lauk erantzun dute gaizki; 35-50 adin-tartean hamar hiztunetatik bik gaizki, eta 70 urtetik gorakoetan ere bakarra izan da hitanoa ezezko perpausetan erabili duena. Gainerakoek forma zuzena erabili dute.

b) Baldintzazko perpausetan, berriz, erantzun okerrak gehiago izan dira: 14-20 urte artekoetan zortzi inkestatuk forma alokutiboak erabili dituzte baldintzan, eta hori ez da zuzena. 20-35 urte artekoetan hamabi hiztunetatik berriro ere bakarra izan da zuzen erantzun duena. 35-50 adin-tartean bostek ondo erantzun dute eta seik gaizki. 50-70 urte artekoetan, berriz, seik ondo eta bik gaizki. Eta azkenik, adinekoenek ez dute erantzun okerrik eman.

c) Galderazko perpausetan hiztun guztiek, gazteenek eta zaharrenek, forma alokutiboa erabili dute.

d) Denborazko menpeko perpausetan, erlatibozkoan, kausazkoan eta konpletiboan, nagusienek, alegia 50-70 adin-tartekoek eta 70etik aurrerakoek, forma egokiak erabili dituzte guztietan.

e) Denborazkoetan aditz-forma alokutiboa erabili dutenak egon arren, gehienek forma neutroa erabili dute. Gazteenetatik lauk erantzun dute ondo eta bostek, berriz, gaizki. 20-35 adin-tartean hamabi inkestatuetatik hiru izan dira forma desegokia erabili dutenak. 35-50 adin-tartean, berriz, hamar hiztunetatik bakarra izan da gaizki erantzun duena.

f) Erlatibozko perpausetan gazteenetatik bostek erabili dute forma alokutiboa, desegokia, hain zuzen ere. 20-35 urte bitartekoetan ere hamabi hiztunetatik bost dira forma desegokia darabiltenak, eta 35-50 adin-tartekoetan, zortzik darabilte ondo eta hiruk gaizki.

g) Kausazkoetan ere gazteenak dira erabilera desegokiena egiten dutenak: bederatzi inkestatuetatik hiruk darabilte forma egokia. 20-35 urtekoetan hamabitik lauk eman dute erantzun okerra, eta 35-50 urte artekoetan, hamaikatik bik.

h) Konpletiboetan, azkenik, inkestatu guztietatik lau besterik ez dira izan erantzun desegokia eman dutenak; 14-20 urte arteko bi eta 35-50 urte arteko beste bi hiztun. Gainerakoek ez dute forma alokutiborik erabili menpekoan.

Emaitza hauetan ikus dezakegu 50 urtetik gorako hiztunak direla hitanoaren erabilera egokien egiten dutenak. Gazteagoetan badira hitanoa modu naturalean eta egoki erabiltzen dutenak, baina forma desegokiak erabiltzen dituztenak gehiago dira. Galderazko perpausei dagokionez, esan behar da, arauak arau, forma alokutiboa esaldi hauetan erabiltzeko joera erabat hedatua dela; Zaldibian hiztun guztiek erabiltzen dituzte hitanoko aditz formak galderazko perpausetan.

HAINBAT ARAZO HITANOAREN INGURUAN

1) Hikako adizkietan, *-k* atzizkiak eta *-n* atzizkiak edo artizkiak sexua iragartzen dute; gizonezkoa batak, eta emakumezkoa besteak. Hala ere, Alberdiren lanean aipatu bezala, animaliei ia gehienetan toka egiten zaie. Hala erantzun digute gure inkestatuek ere[8].

   Hau baino harrigarriagoa da, ez bakarrik euskaldunok bakarrizketan alokutiboa sartzeko ohitura, emakumezkoek bere buruarekin ari direnean adizkera maskulinoa erabiltzea ere bai. Gehienek hala erantzun digute, baina batek edo bestek bakarrizketan adizkera femeninoa darabiltela baieztatu digute.

   Badirudi, beraz, bi kasu hauetan bertan behera gelditzen dela sexu bereizketa hori: *-k* markagabe bihurtzen da eta *-n* markatu.

2) Lehenago aipatu dugu hitanoa pertsona bakar bati hitz egiten diogunean erabili ohi dela. Hau, ordea, ez da euskalki guztietan betetzen. “Ni ibili nauk” gisakoak hizketa lagun bati baino gehiagori hitz egiterakoan ere erabiltzen dira. Horrela bada, erregela bat baino gehiago, joera bat dela esan beharko genuke.

   Zaldibian inkestatu ditugunetan, koadrilako lagun guztien aurrean hitanoa erabiltzen dutela baieztatu digute gehienek. 35 urtera arte mutilak izan dira batez ere hau baieztatu digutenak; lau neskak esan digute zuka egiten dutela koadrilan guztiei batera hitz egin behar dietenean. 35 urtetik aurrera, berriz, neskek zein mutilek hitanoa erabiltzen dute hizketa lagun bati baino gehiagori batera hitz egiterakoan.

INKESTAREN ONDORIOAK

Hitanoaren erabilera esparrua aztertu nahi izan dugu inkestaren lehenengo atalean. Alegia, hiztunek norekin egiten duten hika, eta garai batetik hona hitanoaren erabilera eremu hori zenbateraino aldatu den. Horretarako, bitan banatu ditugu erantzunak: batetik, familia inguruko harremanetan erabilitakoak, eta bestetik, familiaz kanpoko harremanetan erabilitakoak. Atal honetan aintzat hartu dugu Imanol Arratibelek Goierriko hitanoaren inguruan egindako lana; *Hitanoa Goierrin* izeneko lan argitaragabea da. Zenbaitetan emaitzak kontrastatzeko aukera eskaini digu.

---

[8] Bitxia da hiztun batek erantzun diguna: berak txakurrei "hika" egiten diela; katuei, aldiz, "zuka". Azken hauek "femeninoagoak" direlako ote da?

Bi aldagai nagusi daude hitanoa erabiltzerakoan: *ahaidetasun-maila* familiako harremanetan, eta *adiskidetasun-maila* familiatik kanpokoetan. Garrantzi handiko beste aldagai batzuk *adina*, *sexua* eta *gizarte harremanak* dira. Hein handiagoan edo murritzagoan aldagai hauek elkarren artean eragiten dute, eta hori aztertzen ahaleginduko gara atal honetan.

Familia (ahaidetasun harremanak)

- *Gurasoei eta aiton-amonei hika egiteko ohitura:*

14-20: amari mutil batek batzuetan, eta beste inork ere ez / aitari, hiru hiztunek (neska batek eta bi mutilek) normalean, eta mutil batek batzuetan; neska horrek aitonari ere bai.

20-35: amari inork ere ez / aitari hiztun batek beti eta bik batzuetan (hirurak mutilak).

35-50: hiztun bakarrak egiten die hika gurasoei (herritar gehienekin darabil berak tratamendu hau); amari beti eta aitari batzuetan. Aitak, ordea, ez du normaltzat hartzen.

50-70: inork ere ez.

70- : inork ere ez.

* Seme-alabek gurasoei hika egitea zer iruditzen zaien galdetu diegu: adinekoenei gaizki iruditzen zaie ("nola leike!", "zuka behar do", "itsusi", erantzun digute). 50-70 adin-tartekoei ere, ondo inori ere ez: seiri gaizki eta biri arraro ("errespeto falta pixkat; etzat gustatzen" esan digu batek). Gazteagoetan iritzi ezberdinak daude: 35-50 urte bitartekoetan, lauri gaizki, bosti ondo eta biri arraro (gizonezko batek esan digu seme-alabek berari egiten diotenean, grazia egiten diola; beste batentzat, berriz, konfiantza seinale da). 20-35 adin-tartean gehienei ondo; bati gaizki eta bati arraro. Eta 14-20 urte artekoetan, azkenik, bakarrari gaizki, bati arraro eta zazpiri ondo.

- *Senar-emazteei:*

Senargaia edo emaztegaia izatea ere aintzat hartu dugu atal honetan.

20-35: bi neskak beti, eta hiruk batzuetan. Mutiletako batek ere beti, eta beste batek batzuetan.

35-50: emakume batek beti; beste batek hasieran baietz, eta gero ezetz esan digu. Bi gizonezkok beti; beste gizonezko batek bietara egiten dio emazteari (hika eta zuka), emazteak, berriz, hika egiten dio honi.

50-70: inork ere ez.

70- : inork ere ez.

* 50-70 urte bitarteko gizonezko batek esan digu oso arraroa egiten zaiola senar-emazteak hika ari direla entzutea. Adin bereko emakume batek ere ez duela gustuko esan digu; inpresio onik ez diola egiten.

Garai bateko senar-emazteen artean hika ez zen egiten. Imanol Arratibelek ere senar-emazteen artean hika egiteari izugarri itsusia deritzotela berak inkestaturiko hiztunek dio bere lanean; hiztun batek esaten dio bikoteek zuka egin behar dutela seme-alaben heziketa onerako. Egungo belaunaldien artean baliteke elkarri hika egiten dioten bikoteak aurkitzea, baina Zaldibian bertan, eskuko behatzekin zenbatzeko hainbat bikote ezagutzen ditugu elkarri hika egiten diotenak.

Zer gertatzen zitzaion ezkontzera zihoan bikote bati aurretik *lagunak* baziren? Franko kostata hika egiteari utzi eta zuka hitz egiten ohitu behar zutela. Arratibelek Goierrin inkestatuetatik lauri gertatu zitzaien hori.

- *Seme-alabei:*

20-35: emakume bakarra da semeak dituena, eta honek batzuetan egiten die hika semeei. Gizonetatik ere bakarrak du semea, eta honek beti egiten dio hika semeari.

35-50: sei pertsona dira seme-alabak dituztenak; hiruk zuka egiten diete; batek semeari batzuetan egiten dio hika, eta beste batek beti; beste gizonezko batek hika semeari eta alabari.

50-70: gizonezkoetan, semea dutenek beti egiten die hika honi; alabari, berriz, inoiz ere ez. Emakumezkoek, berriz, hiruk batzuetan egiten omen die semeari hika, eta batek "jenio txarren naunen" gazteenari; alaba dutenetan bik beti egiten diote hika alabari; beste batek inoiz ere ez.

70- : hiru emakumek eta gizon batek dituzte seme-alabak (emakume batek ez du semerik). Bi emakumek ez die hika egiten alabei (batek bai), eta semeari, berriz, bai. Gizonak, berriz, semeari beti eta baita alaba zaharrenari ere (gazteenari ez). Imanol Arratibelek inkestaturikoetan ere gauza bera gertatzen da; ez dakite erantzuten honen zergatia, baina uste du adinaren aldagaiak baduela hemen eragina: alaba gazte hauek diferentzia handia dute, adinari dagokionez, ahizpekiko.

Gizonezkoak, beraz, errazago egiten dio hika semeari alabari baino. Imanol Arratibelek bere lanean horrelakorik esaten ez badu ere, Xabier Alberdik semeari errazago egiten zaiola hika alabari baino esaten du bere lanean, eta bat gatoz gu horrekin. Emakumezkoei dagokienean, semeei bezala alabei ere egiten diete hauek hika.

- *Bilobei:*

50-70: bik badute biloba, baina ez diote hika egiten.

70- : emakume batek mutilak diren bilobei hika egiten die; ez, ordea, neskei. Beste batek biloba mutil bati egiten dio hika, ez besteei; hirugarren emakumeak zuka egiten die neska eta mutilei. Gizonak, berriz, mutilei beti, eta neskei ez.

PUBA
PUB
OAIÑ ETORRI DENANA...
...GUE LENGUSUE DEN.
NOLA?
OAIÑ ETORRI DANA..
...IZANGO 'EN ZUEN LENGUSUE, ALA?

- Ahizpei edo arrebei / Anaiei:

14-20: nesketan batek ahizpari eta anaiari batzuetan egiten diela esan digu; beste batek anaiari (zaharragoari) beti; eta beste batek ahizpa bati (adinez gertukoenari) batzuetan. Mutiletako batek ere beti egiten dio hika anaia zaharragoari; beste biek ez.

20-35: Neska batek anaiari normalean hika egiten dio (ez, ordea, ahizpei); beste batek batzuetan egiten dio ahizpari. Mutiletan, berriz, arreba dutenek ez diote hika egiten honi, eta anaiari, berriz, bik beti eta batek batzuetan.

35-50: Nesketan gehienek darabilte hitanoa senideekin; ahizpari bik beti egiten die, eta batek batzuetan; anaiari, berriz, batek beti eta beste batek batzuetan. Bi mutilek senideei beti egiten die hika; beste bik anaiei beti egiten diete hika; arrebei, ordea, normalean ez.

50-70: Hemen guztiek darabilte hitanoa. Emakume eta gizon guztiek (emakume batek izan ezik) darabilte bai anaiarekin eta bai ahizparekin edo arrebarekin hitanoa.

70- : Bi emakumek anai guztiekin darabilte hitanoa (ahizparik ez dute); beste batek bai anaiarekin eta bai ahizparekin; laugarrenak ez darabil ahizpekin. Gizonezkoetan, berriz, batek arreba bati beti eta besteari ez; anaiari, berriz, beti. Beste gizonezko batek hika egiten dio arrebari; eta besteak zuka egiten du anai-arrebekin.

Andrazkoak ohiko baldintzetan anaiari hika egiteko ohitura handia zuen; hala baieztatzen du Arratibelek bere lanean. Senideen artean hika egiteko joera nabarmena zegoen. Hika egiten zen etxeetan, berdin mutilak neskari zein neskak mutilari. Hika egiten ez zutenek era berean egiten zuten zuka anaiarekin zein arrebarekin. Baina esan dezakegu garai bateko baserri giroko euskaldunen artean ia erabat egiten zela hika senideen artean. Badirudi, ordea, hiztun gazteetan aldatzen ari dela joera hori: mutil gehienek anaiari hika egiten diote; arrebari, ordea, nekez.

- Osaba-izebei:

14-20: nesketako bik osaba bati egiten diote (batek gazteenari; besteak ez); beste batek izeba bati, eta beste batek osabari batzuetan. Mutilek, berriz, osabei beti egiten diete (batek izan ezik), eta batek izebari batzuetan; beste batek esan digu Zaldibiako izeba-osabei egiten diela, ez besteei.

20-35: bi neskek pertsonaren arabera izaten dela hau diote; batzuei beti egiten diete, beste batzuei berriz inoiz ere ez. Mutilek izebei ez diete inoiz egiten; osabei, berriz, bik beti, batek bati beti, eta beste batek batzuei batzuetan.

35-50: emakume batek amaren aldeko guztiei egiten diela esan digu. Gizonezko batek, berriz, etxeko bi osaba gazteenei egiten omen die, besteei inoiz ere ez; beste batek, etxeko izebari beti, eta osabarik gazteenari (amaren aldekoari) ere bai.

50-70: inoiz ere ez.

70- : inoiz ere ez.

- *Ilobei:*

35-50: gizonezkoek iloba mutilei egiten diete hika: bik beti, eta beste batek batzuei beti; batek esan digu neskei bi eratara egiten diela. Emakumeek, berriz, bik neskei batzuetan egiten die ("espresiok die batipat" esan digu batek).

50-70: gizonezkoetan, bik mutilei beti eta neskei inoiz ere ez; beste batek, neskei beti eta mutilei inoiz ere ez; eta besteak, bai neskei eta bai mutilei. Emakume batek ilobetako mutil bati egiten dio hika; beste batek mutilei nahasian egiten die (hika eta zuka), eta neskei hika gutxiago; gainerakoek ez diete egiten.

70- : emakume batek esan digu, etxean dituen hiru ilobetatik (neskak) zaharrenari egiten diola hika, beste biei zuka; baserriko ilobetan, berriz, hiru zaharrenei (neska bat eta bi mutil) hika eta beste biei zuka. Beste emakume batek mutilei beti hika egiten die; neska batzuei hika eta beste batzuei zuka; gizonaren aldeko ilobei zuka. Besteek inori ere ez.

Seme-alabei hika egitea oso normala zela dio Imanol Arratibelek bere lanean. Adinez goitik beheragoko beste harremanetan hika erabiltzea ez da hain arrunta; erabiltzekotan ilobekin erabiltzen da. Beste harremanetan (bilobei, suhiari, etab.) ez omen du jaso hitanoaren erabilerarik eta inkestatuei oso arrotza gertatzen omen zitzaien. Ez da hori, ordea, guk Zaldibian aurkitu duguna: ilobekin eta bilobekin askok darabilte hitanoa; suhiarekin, berriz, 70 urte arteko batzuk hika egiten badute ere, 70etik gorakoek ez dute hitanoa erabiltzen suhiari edo errainari hitz egiterakoan.

- *Lehengusuei:*

14-20: neska batek lehengusu mutilari batzuetan, ez lehengusinari; beste neska batek, berriz, lehengusinari batzuetan, ez lehengusuari; beste batek Zaldibiako pare bati (neska eta mutil) beti. Mutilek, berriz, lehengusuari beti egin ohi diote hika, lehengusinari, berriz, bakarrak eta batzuetan.

20-35: nesketatik bik erantzun digute, pertsonaren arabera, batzuei beti eta beste batzuei inoiz ere ez (ez da sexu kontua). Mutilek, berriz, lehengusuari guztiek egiten diete hika; batek esan digu gazteagoei soilik egiten diela, eta beste hiruk pertsonaren arabera. Lehengusinari bik bakarrik egiten diote hika, batzuei eta batzuetan.

35-50: emakume bakarra da lehengusu eta lehengusina guztiei hika egiten diena; beste batek, batzuetan. Gizonek, berriz, bik egiten diete hika lehengusuei, eta bakarrak lehengusinei.

50-70: emakume guztiek diote batzuei (neska edo mutil) beti egiten dietela (batek izan ezik); batek dio mutilei errazago egiten diela. Gizonek, berriz, lehengusuei beti, eta lehengusinei bik beti, eta beste batek batzuei beti.

70- : emakume batek adin beretsuko lehengusuei (neska zein mutil) hika egiten die (lehengusu haiek berari zuka egin arren).

* 50-70 adin-tarteko emakumeetatik bik pertsonaren eta konfiantzaren araberakoa dela diote. Beste batek, berriz, dio, nesketan gazteagoei egiten diela; mutiletan adin bertsukoei eta zaharragoei.

- *Koinatu-koinatei:*

14-20: neska batek koinatuari beti; beste batek koinatari batzuetan.

20-35: nesketatik batek koinatuari eta koinatari batzuetan; beste biek inoiz ere ez koinatuari; koinatari, aldiz, batek beti eta besteak inoiz ere ez. Mutiletan inork ere ez dio egiten koinatari hika; koinatua duten guztiek, berriz, hika egiten diote honi.

35-50: bi emakumek egiten die hika koinatu-koinatei; koinata guztiei, ordea, ez (batek biri bakarrik; besteak berari egiten dienei). Beste emakume batek koinatuei batzuetan egiten die. Gizonek koinatuei beti hika egiten diete; koinatari bik beti, eta beste bik batzuei beti.

50-70: emakume bakarrak egiten die hika koinatu-koinatei, eta honek ere batzuei bakarrik, pertsonaren arabera; zaharragoei zuka. Gizonetatik bik beti egiten diete hika koinatu-koinatei; beste batek, koinatei inoiz ere ez; koinatuei, berriz, bere aldekoei beti, eta emaztearen anaiei ere bai. Emaztearen koinatuei, ordea, zuka.

70- : gizonezko bakarrak egiten die hika koinatuei; koinatei, ordea, zuka.

Adiskidetasunak lor zezakeela familian hitanoaren eremua zabaltzea dio Arratibelek. Hori nabarmen gertatzen da koinata-koinatuen kasuan. Aurretik ezagunak badira (adin bertsukoak, herrikoak) hika egingo diete ahaidetasun harremanak izanda ere. Koinatuarekin gehienek zuka erabiltzen dute, baina koinatua ezaguna bada aurretik, alegia, konfiantzazkoa, hika erabiliko dute. Horrelakoak herri txikietan sarri gertatzen dira. Hau *adiskidetasunaren mutur sartze* txiki bat bezala uler dezakegu, Arratibelen esanetan.

Laburbilduz, hitanoaren erabilera etxe bakoitzak markatzen du. Hitz egin genezake toki bateko joeraz, baina beti topatuko genituzke salbuespenak. Etxe bakoitzak markatzen duen erabilera horretan aldagai nagusia *ahaidetasun-maila estua* da. Ahaidetasun-maila hau berdinetik berdinera edo goitik behera izaten da. Hau da, hiztuna hika zuzenduko zaio ahaidetasun harreman estuko bati bere mailan badago (senidea), edo beherago badago (seme-alabak). Noizbait bai goragokoari ere, aita-ama, aiton-amona, eta horien maila bereko ahaideei (osaba-izeba, etab.).

Adinak garrantzia izaten du salbuespenetan. Alegia, goragokoei hika egiten ez bazaie, zaharragoei ere ez zaie egingo. Modu berean, senideak adin batekoak izango dira, eta adin desberdintasun handia dagoenean –belaunaldi batekoa edo– orduan gertatuko da, gertatzekotan, tratamendu aldaketa.

Sexuari dagokionez, garai bateko baserritar gizartean, behintzat Goierri aldean, ez zen desberdintasunik egiten. Gizonezkoak emakumezkoari hika nekezago hitz egitea gauza berria da. Hitanoak indarra duen *taldeetan* sexuaren eragina ez da oso garrantzitsua, baina hitanoak indarra galtzen badu sexuaren aldagaiak indarra hartzen du, eta emakumea ateratzen da galtzaile.

Esan dezakegu garai bateko baserri giroko euskaldunen artean ia erabat egiten zela hika senideen artean. *Kale* giroaren desberdintasunaz mintzatuko gara hurrengo atalean.

Familiaz kanpoko harremanak (adina, sexua, kidetasuna, adiskidetasuna, estatusa)

- *Nagusiari:*

14-20: neska batek inoiz ere ez. Mutiletako batek beti, eta besteak inoiz ere ez.

20-35: neskek ez diete egiten. Mutiletan bik beti; beste bik pertsonaren arabera bai edo ez; hiruk ez diete egiten.

35-50: nesketatik bik egiten dute. Mutilek, berriz, bai, baina adinaren arabera (alde handiegirik ez badago adinean).

50-70: emakumeek inoiz ere ez. Gizonezko batek beti, besteak inoiz ere ez.

70- : Sekula ere ez diote nagusiari hika egin.

- *Langileei:*

14-20: neska batek beti.

20-30: neskek ez. Bi mutilek beti, eta beste batek sexuaren arabera.

35-50: emakume batek batzuei beti. Mutil batek guztiei; besteek mutilei soilik.

50-70: emakume batek beti. Bi gizonezkok ere bai; batek dio emakumeetan bakarra dagoela hika egiten diona, berak ere hala egiten diolako.

70- : emakume batek konfiantzaren arabera hika gehienetan, emakumea edo gizona izan ("ni tentatzen niñunai beti ika" dio).

* Galdera horien helburua, egoera sozio-ekonomikoak hitanoa erabiltzerakoan eragina duen ikustea zen. Gazteenen artean ez dirudi eragin handirik duenik; nagusien artean, beharbada gehiago. Alberdirentzat, *Norberak gizartean duen lekuak, beraz, (aparteko leku ondo markatua ez bada: abadea, frailea, medikua, abokatua, ...) ez du gehiegizko eraginik hikako eta zukako erregistroen artean aukera egiterakoan* (Alberdi, 1996: 461)


EZTIAT USTE MIKEL ESKOLA ETORRIKO 'EKENIK
AIZAK, OI EZTEK ONDO ESAN !
EZTIAT USTE MIKEL ESKOLA ETORRIKO 'ANIK IZANGO DEK, ALA?

- *Zerbitzariei:*

14-20: nesketatik batek bati bai (neska), besteei ez. Mutilek beti; bik neskei ez.

20-35: nesketatik bik hika; batek adinaren eta itxuraren arabera. Mutiletan hiruk mutilei beti eta neskei inoiz ere ez; beste batek mutilei beti eta neskei batzuetan; beste batek gazteei beti.

35-50: emakumeek zuka; batek batzuei hika (harremanaren arabera). Bi gizonezkok beti hika; beste bik mutil gazteei.

50-70: emakume batek bati hika (gertuenekoa); besteek zuka. Gizonetatik bik pertsona eta konfiantzaren arabera; beste batek mutilei hika eta neskei zuka.

70- : emakumeek inoiz ere ez; gizonezko batek beti.

- *Ikaskideei:*

14-20: nesketatik hiruk konfiantza handikoei beti; beste batek neska batzuei beti, mutilei inoiz ere ez. Mutilek mutilei beti, neskei inoiz ere ez (Ordiziako ikaskideak dituen batek inori ere ez; besteak euskaldun zaharrei bai, baina besteei ez) .

20-35: nesketatik hiruk neskei batzuetan, eta batek mutilei beti; neska batek dio batzuei beti "azpeitiarrai, eak e ala itten duelako"; beste batek, normalean, bai neskei eta bai mutilei. Mutilek mutilei beti; neskei, aldiz, bakarrak beti eta batek batzuei beti.

35-50: neska ikaskideei gizon batek soilik egiten die hika. Bi emakumek mutilei beti, eta hiru gizonek ere bai.

50-70: nesketatik hiruk beti bai neskei eta bai mutilei. Mutilek ere mutilei beti.

70- : bi emakumek beti; beste batek pertsonaren arabera. Bi mutilek mutilei beti, eta batek neskei ere bai.

* 20 urteko neska batek dio, zenbait ikaskide mutil harritu eta kexatu egiten direla berak hika egiten dienean; ez dutela gustuko.

- *Ezezagunei:*

14-20: mutilek mutilei beti (batek ez); neskei, berriz, batek batzuetan eta besteak inoiz ere ez.

20-35: neska batek itxuraren arabera. Mutiletan lauk mutilei beti, baina horietako hiruk adinaren arabera; 60 urte ingurukoetatik gora zuka. Neskei, berriz, bakarrak, eta adinaren eta lekuaren arabera.

35-50: emakume bakarrak, eta batzuetan. Gizon batek adin bertsukoei bai, eta beste batek gazteagoei.

50-70: emakumeetan inork ere ez. Gizonezko batek adinaren arabera dio, besteak mutil gazteagoei baietz.

70- : inork ere ez.

* Ezezagun batek beraiei hika egitea zer irudituko litzaiekeen galdetu diegu. Gazteenek iritzi ezberdinak izan dituzte: gaizki, biri arraro eta lauri ondo (batek dio atentzioa deituko liokeela). 20-35 urte artekoei guztiei ondo irudituko litzaieke. 35-50 adin-tartekoei ere bai, baina bati arraro egingo litzaioke. 50-70 urte artekoetan gaizki bakarrari; hala ere, adinaren eta sexuaren araberako kontua dela diote bik, eta emakume batek, berriz, hau esan digu: "Euskaldune bada ezto ingo. Erdipurdikok bai". Adinekoenei, bati ondo, eta hiruri gaizki; emakume batek, berriz, hau esan digu: "ezta itten; gaizki eo ondo? erdiñ utziko deu"; eta beste batek, "ezto ingo".

- *Ezagunei:*

14-20: neska batek beti, eta beste bik konfiantzaren arabera. Mutilek, berriz, mutilei beti eta neskei inoiz ere ez; beste batek normalean hika, baina zaharragoei ez; eta beste bik inori ere ez.

20-35: nesketatik hiruk, adinaren eta itxuraren arabera, beti. Mutilek mutilei beti (batek dio zaharragoei egitea zailagoa dela); neskei bostek inoiz ere ez, batek zaharragoei zuka, eta besteak berari aurrez egiten diotenei soilik.

35-50: emakumeetatik bik beti, baina ez zaharragoei. Gizonetan bik mutilei beti, baina batek 60tik beherakoei; neskei zuka. Beste batek, bai mutilei bai neskei, beti hika.

50-70: emakumeetatik lauk beti, baina pertsona eta adinaren arabera. Gizonek, berriz, mutilei beti (batek dio zaharragoei zuka) eta neskei bik batzuetan.

70- : emakume batek "gaztegok dien mutil-zar batzui" egiten die; beste batek ohituraz beti egin diotenei. Bi gizonek, berriz, mutilei beti eta neskei inoiz ere ez.

- *Lagunei:*

14-20: neska batek beti, neskei eta mutilei; bi neskek batzuetan; beste batek neskei beti. Mutilek mutilei beti, eta neskei inoiz ere ez (batek, mutilei gehiago egin arren, neskei ere bai); batek inori ere ez.

20-35: neskek pertsonaren arabera egiten dute hika. Mutilek, berriz, mutilei guztiek eta neskei bakarrak.

35-50: emakumeetatik lauk egiten dute hika: batek dio mutilei zuka egiten diela, eta nesketan ohitura hartuta dutenei hika; beste batek mutilei beti hika, eta neskei gehienetan zuka; beste batek, berriz, herriaren arabera, Ataungoei hika, Ordizia-Beasaingo bati, ordea, zuka. Mutilek beti hika; hiruk neska batzuei (batek dio zaldibiarrei egiten diela), eta besteak gazteagoei zuka.

50-70: Emakume guztiek egiten dute hika lagunekin (batek pertsonaren arabera, besteak adinaren arabera). Gizonek ere bai mutilekin (batek zaharragoei ez); neskekin, berriz, bik normalean bai eta besteak, batzuei beti egin arren, gehienetan zuka.

70- : emakumeek lagun batzuei beti (neska zein mutil). Gizon batek guztiei beti, eta besteak mutilei soilik. Emakume batek hala esan digu: "etxekonen jolasen ibilitakoi-ta beti ika; laroi urte eo oita amar euki, igoal da"; gertu izan dituen horiei, beraz.

- *Koadrilakoei:*

14-20: Nesketatik batek beti; bik (neskei eta mutilei) batzuetan; beste batek, neskei beti eta mutilei inoiz ere ez; guztiei batera bik beti, besteak inoiz ere ez eta, besteak, batzuetan. Mutilek mutilei beti (batek batzuei, konfiantzaren arabera), neskei batek beti, besteak batzuetan, eta bik inoiz ere ez; guztiei batera, berriz, hiruk beti eta besteak "atatzen danen".

20-35: nesketatik lauk neska batzuei beti; mutilei, berriz, batek beti eta hiruk batzuei; guztiei bakarrak egiten die hika eta, beste batek, batzuetan. Mutiletan mutilei guztiek egiten diete (bik diote koadrilako bati ezetz); neskei, berriz, bakarrak egiten die beti, eta bik koadrilako neska bakarrari; guztiei batera bik beti, eta beste batek ez daki.

35-50: nesketatik hiruk beti, eta batek neskei soilik; guztiei batera bik egiten diete hika, batek toka, eta besteak bietara. Mutilek, berriz, koadrilako guztiei beti (batek neskei ez, beste batek neska batzuei, eta beste batek neskei bi eratara) eta guztiei batera ere bai.

50-70: emakumeek beti; guztiei, batera ari direnean, batek toka egiten diela dio. Gizonek ere beti.

70- : emakumeek beti (batek mutilei zuka gehiago), eta guztiei, batera ari direnean, ere bai. Gizonek ere beti; batek mutilei bakarrik.

Adinaren aldagaiak garrantzi handia du. Zaharragoei asko kostata mintzatuko zaizkie hika. (Esaterako, Imanol Arratibelek inkestaturiko batek bost urteko gorabehera kalkulatzen omen zuen hika erabiltzeko, bost urte zaharragoei eta bost urte gazteagoei. *Edozeini egitea gaurko gauza da.)* Gazte askok muga 55-60 urte inguruan jarri digute. Hala ere gazteago batek beraiei hika egitea zer iruditukо litzaiekeen galdetu, eta 50 urtetik gorakoak izan dira gaizki edo arraro iruditu zaienak; gazteagoei ondo iruditukо litzaieke.

Hiketaren erabilera jaisten bada, eta kalean asko jaitsi delakoan gaude, gizonezkoek nekez hitz egiten diete hika emakumezkoei. Egoera hori nabari dela dirudi Zaldibian ere. Hala ere, neskei hika egiten dien galdetu eta hiztun batek baino gehiagok emandako erantzuna nabarmendu nahi genuke: "beak aurrez ala itten badit, bai", edo "oitturea artuta dauketenakin bai".

Garai bateko baserri giroan, lagunekin egiten zen batez ere hika. Alegia, auzo edo herrixkan txikitatik elkar ezagutzen zutenen artean egiten zen. Beraz, *ohiturik* zeude-

nekin egiten zuten. Eta hori da adinekoenen erantzunetan suma daitekeena ere.

Ia gehienek hika egitea konfiantza seinale moduan hartzen dute. Akaso, horregatik harritzen dira hainbeste beraien hitanoaren erabileraren eremuetatik kanpo entzuten badute. Batzuentzat ohitura kontua da. Erantzun bakartzat ohitura ematen dutenek, tratamenduak *erraztasun* handiz erabiltzen dituztela dirudi. Hau da, ohitu egin dira garrantzi berezirik eman gabe tratamendu bata ala bestea erabiltzera.

ONDORIO OROKORRAK

Imanol Arratibelek Goierriko hitanoa aztertzerakoan ateratako ondorietariko batzuk aintzat hartu ditugu atal honetan, eta Zaldibiako hizkerara egokitu ditugu:

1.- Goierrin guztiz ezaguna eta erabilia da hitanoa. Gehienek, ikasi, etxean eta bere ingurumarian ikasi dute.

2.- Euskaraz aditz joko alokutiboak erregistro desberdinei lotzen zaizkie. Horregatik beren erabilera derrigorrezkoa izan daiteke. Alegia, Goierrin, baserri giroan behintzat, lagunartean konfiantza adierazi nahi badugu, hitanoa erabili beharko dugu.

3.- Norberak bere buruari hitz egiterakoan, erabateko joera dago forma alokutiboak erabiltzeko, baita gehienetan zuka egiten dutenen artean ere. Gehienek egiten diote toka beren buruari, emakumezkoek barne. Horrek indartzen du tokakoa markagabea izatea.

4.- Etxeko abereei toka hitz egiteko joera dago. Ez da, beraz, sexua bereizten animaliari hitz egiten zaionean. Animaliari zuka egiteko, estimatua behar du oso.

5.- Familiaren harremanetan aldagai nagusia ahaidetasuna da. Ahaidetasuna estua bada, hika egin daiteke parekoarekin (senidea) edo gazteagoarekin (seme-alaba, eta, askoz gutxiago iloba). Lehen, senideen artean hika egiten zen. Joera horrek indar handia galdu du gazteen artean.

6.- Adinaren aldagaiak ere garrantzia du. Familia harremanetan ez zaio sekula hika egingo, zaharragoa izaki, beste *kategoria* batean dagoenari (aita, aitona,...). Senidea askoz zaharragoa denean ere, gertatu da zuka egitea.

7.- Badirudi emakumea beti errazago mintzatu zaiola hika gizonezkoari. Dena dela, garai batean behintzat, sexu aldagaiak ez zuen eragin nabaririk. Egun, kale giroan batez ere, gizonezkoak nekez egiten dio hika emakumezkoari; baina, bestalde, ikaragarri zabaldu du hikako barrutia beste gizonezkoekin jarduten denean. Bitartean, emakume kaletar gazteek ez dute gizonek adina hika egiten; pertsona jakin batzuekin erabiltzen dute hitanoa.

8.- Familiatik kanpo aldagai nagusia konfiantza da, baina beste aldagaiak ere –adina eta, batez ere, sexua– garrantzitsuak dira.

9.- Berorika galdutzat jo genezake Goierrin, hiztun askok eta askok, zaharrenek noski, ezagutu eta erabili badute ere. Berorika gizarte mailan gorago zegoenari (adibidez: apaizak, medikuak, etab.) hitz egiteko erabiltzen zen. "Zezaketen" familietan ere erabiltzen zen seme-alabek gurasoei egiterakoan; guk bildu ditugu adibide batzuk. Hiztun batek aitari hitz egiterakoan: *itzeitteko mun al dau?; eztauke itteik permixoi[k] paiñ.*

10.- Goierriko herriei dagokienez, nekazal giroari eutsi dioten herri eta auzuneetan (Beasain-mendi, Lazkaomendi, Ezkio, Ataun, Zaldibia, ...) ematen du hitanoari hobeto eutsi zaiola. Herri handietan ez da hainbeste erabiltzen (Lazkao, Ordizia, Beasain...).

HITANOAREN GALERA. ARRAZOIAK

Atal honetan hitanoari Alberdik aurreikusten dion geroa azaldu nahi dugu eta bat egiten dugu berak esandakoarekin (1993: 432-434):

Indar askok jokatzen dute bakantze horren alde, hitanoaren galeraren alde, alegia:

a) Gaur egungo euskararen osasun makala (...) oro har –salbuespenak salbuespen– zenbat eta euskarak biziago eta bakartuago iraun, hitanoak ere hainbat eta aukera handiagoa izango du delako herrian bizirik eta osasuntsu irauteko.

b) Hikako tratamenduan alokutibotasunari (aditzean) zor zaion morfologiazko oparotasuna (...) zama astun eta erabilgaitz bihurtzen da erregistro bakarreko euskaldunen begietan.

c) Hikako tratamenduari –batek ez daki ongi noiztik, zergatik eta noren eraginez– halako omen edo ospe txarra eta laidozko kutsua itsatsi dizkiote Euskal Herriko toki askotan, eta, ondorioz, euskaldun askorentzat tabu gisako zerbait bihurtu da.

d) Gauzak horrela, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa nahita moztu izan dute familia askotan, itsusia delakoan.

e) Euskal Literaturaren tradizioan ez da hitanoa hainbeste erabili oraintsu arte. Hori dela eta (...) hitanoak ez du izan behar adinako ispilurik literatur tradizioan.

f) Gaur egun, irakaskuntzak ez du gehiegi laguntzen hitanoaren alde, sarri-askotan hitanoarena baino beharrizan larriagoak daude eta.

g) Komunikabideei gagozkiela, beren mugak dituzte hitanoa hedatzeko ahaleginean: diskurtsoa neurri handi batean erregistro neutroan gauzatu beharra dute, inongo solaskideri bereziki zuzendu gabe.

ONDORIOAK

KOKAPENA

ONDORIOAK

ONDORIOAK
KOKAPENA

Lanaren hasieran, *Euskalkiaz* atalean, orain arteko euskalkien sailkapenak ikusi ditugu. Azterketa horietan guztietan Zaldibiako hizkera euskalki berean kokatu izan dute: lehenengo gipuzkeran, eta azken urteetan erdialdekoan.

Erdialdekoa terminoa Koldo Zuazoren *Euskalkiak, gaur* lanean ezagutu genuen, eta ez da gipuzkeraren eremu bera. Erdialdeko euskalkian Gipuzkoa guztia, Deba ibarra izan ezik, eta Nafarroako zenbait eskualde daude: Araitz, Imotz, Basaburua eta Larraun.

Gure azterketak ez du ikuspegi berririk ekarri gai honetan. Zaldibiako hizkerak erdialdeko ezaugarriak ditu.

ERDIALDEKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN EZAUGARRIAK

1) *J* kontsonantea gaztelaniaz bezala ahoskatzen da.

2) EDUN-en orainaldiko aditzetan -e- erroa azaltzen da:
det, dezu, deu, ...

3) IZAN-en orainaldiko aditzetan -e- erroa azaltzen da:
gea, zea, ...

4) JOAN-en adizkiak Gipuzkoan sortu diren forma berriak dira:
nijo, dijo, ...

5) AL galdera partikula bai-ez erantzuneko galderetan agertzen da:
etorri al da?, ...

6) Lexikoa: *aitton-amonak, babarruna, baillara, erromako zubi, faborez,...* NOR eta ZEIN izenordain galdetzaileen artean ZEIN gailendu da erabat.

Erdialdeko eremuan, Zaldibia sartaldean dago, eta eremu horretako ezaugarriak hartzen ditu bertako hizkerak.

SARTALDEKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN EZAUGARRIAK

1) Hitz-oinaren amaierako berezko *-a* bokalari *-a* mugatzailea gehitzen zaionean, *-a* + *a* > *-ea* bilakaera gertatzen da:
   aldapea, koka-kolea...

2) EGIN erroaren erabilera zabala:
   Emaiok orri!

3) Partizipioetan, gaztelaniazko *-ado* > *-au* bihurtzen da: *pentsau, gastau*.

   Euskal aditzetan ere bilakaera bera gertatzen da: *zartau, zirikau,...*

   Maiz, areago joaten da: *-au* > *-a*: *arrapa, billa...*

4) Partizipioa + *ta* nagusitzen da: *nekauta, erreta*.

   Baina *–rik* eta *–a* ere badira Zaldibiako hizkeran.

5) EDUN laguntzaile lanetarako bakarrik erabiltzen dute gazteek:
   Ekarri zittun ógik.

   Baina adinekoek aditz nagusi modura ere askotan erabiltzen dute:
   Zazpi ume zittun orrek.

6) Gipuzkoako beste hizkeretan bezala, Zaldibian ere *edo* nagusitu da; baina *ala* juntagailuak ere bizirik dirau, batez ere galderetan:
   Eztakit etorriko'an ala ez.

7) Perpaus konpletiboetako *–ena* gordetzen da:
   Nik antzeman nion ilko zana.

8) Lexikoa: *izara, baba, indaba, zapatu, zil.*

Era berean, erdialdeko eremuan hegoaldean dago Zaldibia, eta bertako ezaugarriak ere baditu hizkera honek.

HEGOALDEKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN EZAUGARRIAK

1) Hitz bat *i* edo *u* bokalarakin bukatzen denean, eta *a* mugatzailea gehitzen zaionean, *a* hori *e* bihurtzen da:
   aundie, garie, bizimodue, ganadue, ...

Bestalde, lehen ere esan dugu Goierri eremu berezia dela hizkuntza aldetik. Zaldibiako hizkerak berezitasun horiek ere baditu.

GOIERRIKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN EZAUGARRIAK

1) Bokal luzeak gordetzen dira:
   zaar, beeko, nee "nire", ...

2) Hitz bati mugatzailea (*-a*) gehitzen zaionean, *-a* hori ezkutatu egiten da:
   orduk, umek, sorok, ...

3) *Nondik* kasuko *-ti* eta *-tik,* eta *zergatik* kasuko *-gati* eta *-gatik* atzizkiez gain, *-tio* eta *-gatio* formak erabiltzen dira:

   etxeti, etxetik, etxetio, ...

   zukati, zukatik, zukatio, ...

4) NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK saileko adizkiek ez dute komunztadurarik egiten objektu pluralarekin:

   Etzat babarrunak gustatzen.

   Kátuk ingurau zaio aittonai.

5) EDUN aditzaren NOR-NORK saileko adizkietan *do* "du", *zon* "zuen" eta *non* "nuen" agertzen dira.

6) EGON aditzaren adizki trinkoetan *au* > *a* egiten da orainaldian:
   zare "zaude", *gare* "gaude", *zarete* "zaudete", *dare* "daude"

   Eta *eu* > *e* bihurtzen da lehenaldian:
   zenden / zeren "zeunden", *genden / geren* "geunden", *zendeten / zereten* "zeundeten", eta *zeren* "zeuden" formak daude.

7) Aldaerak: *beiz* “berriz”.

8) Lexikoa: *sobrare, zesuma*.

9) Oharra: Goierriko bi ezaugarri ez dira Zaldibian agertzen.

a) *Norentzat* kasuko *–endako* forma ez da agertzen; *-entzat* eta *-entzako* dira ordezkoak.

b) Irten aditza inoiz ere ez da agertzen; *atera* da ordezkoa.

GAZTEEN ETA ADINEKOEN HIZKEREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

ONDORIOAK

ONDORIOAK
GAZTEEN ETA ADINEKOEN HIZKEREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

Zaila da hiztun helduetatik hiztun gazteetara aldatu diren hizkuntz ezaugarri guztiak biltzea. Aldea nabarmena da; ezin da, ordea, diferentzia hori ezaugarri zerrenda batean bildu. Hizkuntzaren sena, jatortasuna, dago auzian; hiztun zaharrenekin hizketaldi bat izan besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Zaldibian azken garaian aldatu diren adibideetatik esanguratsuenak biltzen saiatu gara, hala ere.

a) AZENTUA:

Azentuaren atalean egin dugu Zaldibiako azentuera ereduen deskripzioa, eta ez dugu hemen aurretik esandakoa errepikatuko (ikus 121. or.). Hala ere, zer aztertua badagoela uste dugu gai honen inguruan, nabarmena baita hiztun helduenetatik gazteetara dagoen aldea.

Behin datu batzuk aurkeztuta, gure hipotesia agertu nahi genuke hemen. Pentsa liteke 50 urte inguruko helduek edo gazteek berrikuntza bat egin dutela: alegia, adinekoen azentuera konplexua [+2] eta [+1], baina baita [+3] eta [+4] ere, gazteagoek [+2] eta [+1]-era soildu egin dutela, eta beraz, azentuera horren ezaugarri batzuk –[+3] eta [+4]– galdu egin dituztela. Ondorioz, soiltzea eta erregelaren bat galdu izana bera dirudi dela berrikuntza, ez adinekoen jarrera. Izan ere, aintzat hartu beharrekoa da zail dela adinekoek berrikuntza bat egitea eta 50 urte inguruko helduek ez jarraitzea, zeren berrikuntza hori garai hartan zahar ez ziren egungo adinekoek egina balitz, ziurrenik egungo helduek ere erabiliko zuten. Hor naturalena da, orain heldu diren horiek gazte denboran edo, berrikuntza bat abiaraztea, egun gazteek jarraitzen dutena.

b) GABE / BAE:

Zaldibiako adinekoen artean *bae* aldaera da nabarmen nagusitzen dena (*ezer in bae, ankaik baekoa, arrastoik bae, dudai pae,* etab.). Zaldibiako gaurko gazteek, berriz, *be / pe* da erabiltzen duten aldaera bakarra (*dudai[k] pe, lani[k] pe, etorri be,* etab.). 50-70 urte inguruko hiztunetan ere *be / pe* aldaera nagusitzen dela esan genezake, orain artean bestelako aldaerarik ez baitiegu entzun.

Bestalde, auzotik auzora ere aurkitu dugu diferentzia ezaugarri honi dagokionez: herrian goialdeko auzo batean *gabe* aldaera jaso dugu *bae*-rekin batera[9] (Zaldibian ez da ohikoa *gabe* aldaera). Gaintzako jendearekin eta Abaltzisketa ingurukoarekin hartu-eman handiagoa izan dute auzo horretakoek; eta *gabe* da, hain zuzen ere, Gaintzan nagusitzen den aldaera.

c) IZENAREN MORFOLOGIA:

Deklinabidea:

- Noren: adinekoek bereizi egiten dute genitiboa aldaera neutroan edo aldaera indartuan erabiltzen duten; forma ezberdinak dituzte baterako eta besterako. Hiztun gazteek, berriz, genitiboaren forma berberak erabiltzen dituzte bai aldaera neutrorako bai aldaera indartu gaberako. Adineko guztiek aldaera indartuaren erabilera egitean forma hauek agertzen dituzte: *nee* 'nire', *ee* 'hire', *geen* 'gure', *zee* 'zure', *zeen* 'zuen', *been / een* 'beraien', *aan* 'haien'. Gazteek, ordea, ez dituzte forma horiek erabiltzen, ondorengoak baizik: *ne(re), ire, gure, zure, zuen, ean* 'beraien', *aiñ* 'haien'.

- Non: gazteei ez zaie entzuten adinekoentzat ohikoak diren *baztarren goenen, farmaziñ gaikalden, bason barrenen* edo *ázpikalden* bezalako formarik. Gazteek *baztarren goralden, farmaziñ goien, bason barrun, azpiñ,* etab. moduko formak darabiltzate.

- Gauza bera gertatzen da 'zerez nondik', 'zerez nongo' formetan ere: adinekoek *berroi urtez beeti, kalez beeko* esan ohi dute. Gazteek horiek adierazteko beste modu batzuk erabiltzen dituzte: *berroi urte baiño gutxigo, kalen beraldeko,* etab.

[9] Urtsu Erreka auzoko Pedro Aierbe berriemaileari gabe aldaeraren hiru agerraldi jaso dizkiogu gure grabazioetan: izotzik gabe, kendu gabe, puskatu gabe. %50ean darabil aldaera hau; beste %50ean ba(r)e aldaera jaso diogu: jo bae, il bare. Auzo bereko beste bi berriemaileei ez diegu gabe / bae aldaeren agerraldi bakar bat ere jaso ahal izan.

50-70 urte inguruko hiztunek adinekoei jaso dizkiegun forma horiek askoz gehiago erabiltzen dituztelakoan gaude. Adin honetako zaldibiarrei betidanik entzun dizkiegu *baztarren goenen, etxen gaikalden, unuzkalden* bezalako formak, eta helduen artean nahiko zabaldurik daudela esango genuke. Honetan ere, ordea, neurketa zehatzagoak egin beharko dira ondorio fidagarriak izan ditzagun.

d) ADITZAREN MORFOLOGIA:

Pare adierazgarriak:

Adineko guztiek erabiltzen dituzten *deana* 'dudana', *tzioen* 'zioten', *tziuen* 'ziguten', *zaittea* 'zaitez', *zoatza* 'zoaz' adizkiak ez dituzte gazteek erabiltzen eta ezta 50-70 urte inguruko hiztunek ere. Hauen ordez, *detena, tzien, tziun, zaiz* eta *zoatz* bezalako adizkiak erabiltzen dituzte bai gazteek eta baita helduek ere. 50-70 inguruko zenbait hiztunek adinekoek darabiltzaten adizkiak modu berean erabiltzen dituzte batzuetan, baina, oro har, adizki horietan aldaketa gertatuta dagoela esan liteke.

NOR-NORI:

Adinekoek maiz erabiltzen dituzte NOR-NORI saileko adizkiak gazteagoek erabiliko ez lituzketen kasuetan. Adizki hauetan, perpausean 1., 2. eta 3. pertsonako *NOR* dagoenean, gazteek *NORI* erabili ordez beste kasu batzuk erabiltzen dituzte. Mugimenduzko aditzen artean, esaterako, *NORI*-ren ordez *NORENGANA*-rekin osatzen dituzte egiturak:

Jute nitzen bereana.

Eana ingurau nitzen.

Jende helduak, ordea, maiz erabiltzen ditu NOR-NORI saileko adizkiak gazteek erabiliko ez lituzketen kasuetan. Adibidez:

Aguro juten tzizatan 'zitzaidan'.

Il zitzatan.

Salta nitzaion.

Jute nitzaion.

Oia jun nitzaion.

Seme bat mendiñ il tzizaten.

Partizipioa + -a: eroie, ille,...

Ohikoena +*-ta* egitura izan arren, asko darabilte zaharrek egitura hau aditz sintagmaren barnean ere; gazteek, ordea, partizipioa + *-ta* darabilte egitura horren ordez. Adibidez:

Eskertue izan.

Eroie billatzen deu.

Ille izango zala.

Ille re izan ote zuen aitzerea bauket nik.

Eztezue jakingo nola zan *jarrie.*

Lana badet *iñe.*

Danak *illek* izango die.

Ibillie nau an.

Egin + Edun:

Adinekoen artean oso arrunta da egitura hau erabiltzea. Esate baterako:

Urte batzuk ein tzittun, beintzat, or.

Amazazpi illabete in nittun Afrikan.

Lau urte in giñuzten neskametzan.

Barberitzan ogei bat urte ingo nittun.

Gazteen artean erabat nagusitzen da *egon* + *izan* egitura:

Bi illabete eon nitzen Londresen.

Lau urte eon giñen istituton.

Trinkoak:

Adinekoek erabiliriko zenbait forma trinko gazteek perifrastiko modura erabiltzen dituzte. Esate baterako:

- Adinekoek, *nundi damea / damarre ude?* 'nondik daramate ura?'
  Gazteek, *nundi ai die ude eamaten?*

- Adinekoek, *nizkion bezela* 'nerizkion bezala'
  Gazteek, *iruitzen tzizaten bezela*

- Adinekoek, *burrukan biok gailtzela*
  Gazteek, *burrukan ai geala*

- Adinekoek, *zare lasai!* 'zaude lasai!', *zoatza!* 'zoaz!'
  Gazteek, *eon tzaiz lasai!, jun tzaiz!*

- Adinekoek, *baeki*
  Gazteek, *jakingo bauke*

- Adinekoek, *nekarreela* "nindekartela", *badakarreela* "badakartela", *bazekarreela.*
  Gazteek adizki perifrastikodun esaldiak erabiltzen dituzte aditz trinko horien lekuan. Horretan, 50 urte ingurukoek gazteek baino joera handiagoa dute adizki trinkoak erabiltzeko.

Subjuntiboa:

Hiztun helduenetan **edin* eta **ezan* erako adizkien erabilera askoz hedatuago dago, oro har. Gazteek nominalizazio bidez adierazten dituzte adinekoei jaso dizkiegun adibideok; 50 urte ingurukoek ere ez dituzte adinekoek bezainbat erabiltzen era honetako adizkiak:

Alaba eon tzeilla etxen "egon zedila".

Eze pasa etzeiñ "ezer pasa ez zedin".

Lo in tzaun "lo egin dezagun".

Ezteilla gerraik etorri "ez dadila gerrarik etorri".

In dezela in bear duena "egin dezatela".

Gue Jainkok zerue eman deiela.

Gurasok etzitzela galazin "ez zezatela galarazi".

Gora io ez zizen “igo ez zitezen”.

[10] Hizkuntzaren jakintza-mailari dagokionez, Zaldibian hizkuntza aukera bakarra dugu: salbuespenak salbuespen (kanpotik etorritako familiak) hiztunaren ezagutza euskaraz da aberatsena, eta hiztuna euskaraz erosoago ari da edozein egoeratan gazteleraz baino (ikus 33. or.).

Badira beste zenbait aditz-forma hiztun zaharrek eta gazteek ezberdin erabiltzen dituztenak. Zaharrenek *ezpazenduken, ezpaziñukiun, sartu bear tziñun* tankerako formak darabiltzate; gazteek, berriz, horien lekuan *ezpazeukezun, ezpazekizun, sartu bear tziozun* modukoak esaten dituzte. Gazteek darabiltzaten aditz-forma horiei pleonastikoak esaten zaie, forma bakarrean pertsona beraren marka bi aldiz agertzen delako: *ZEkiZUn.*

e) SINTAXIA:

Esaldi osagarriak egiteko adineko batzuek *-(e)la* atzizkiaren ordez *-(e)na* atzizkia erabiltzen dute oraindik. Esate baterako:

Bagiñukun arek defendittuko giñu<u>na</u> 'bagenekien hark defendituko gintue<u>na</u>'

Gazteek ez dute hori inoiz erabiltzen; 50-70 urteko hiztunek, berriz, noizbehinka; aldaketa erabat gauzatu da horretan, eta *–(e)la* da gazteek darabilten konpletiboko marka.

Erlatibozko perpausetan, ordea, gazteetan ohikoa ez den *–(e)n + (e)ko* egitura bai adinekoek eta baita 50-70 urteko helduek ere maiz erabiltzen dute. Adibidez:

Kultur etxea dau<u>neko</u> plaza ortan eongo gea.

ZALDIBIARRAK ETA EUSKARA[10]*:*

Bat datoz adineko guztiak gaurko euskarara egon den aldaketa baieztatzerakoan. Datu horiek soziolinguistikoki duten garrantzia nabarmendu nahi dugu hemen. Guztiz garrantzizkoa da *azken fiñean, lanen dau,...* bezalako esapideek hiztun zaharrei belarriko mina ematen dietela esplizituki beraiei jasotzea, agerian uzten baitu hiztun horiek jabetzen direla hizkuntza nola ari den aldatzen eta ez dituztela begi onez hartzen gaztelaniaren eraginez sarturiko esapideak.

Askok izan dute esateko zerbait:

[A] Askotan esaten due "aluzinatu"; joe, orrek belarriko miñe itte´it nei. "Lilluratu" askoz polittagoa ez al da? Oittura batzuk dauzku... Gue amazanana-ta etortzen tzien garaien, Olaldeko oiñ ama, Olaldeko Marian-da amaiarreba, eta Aierdiko Baisten-da ama... orik gue etxea etortzen tzienen, orik itten tzuen izketa, euskera jatorra! euskera ederra itten tzuen orik.

[J] Oinbeste enpeño ibilli da euskerea kanbiatzeko, batua bear gendula ta; orti ikasi donak, gu galduta geldittu bearra dauku. Oaiñ, gaizki asko ibiltzen die gáztek, e.

[A] "Azken fiñean", aber, oi zer da. Oi izugarri erabiltzen da.

[J] Basarri zanak aspaldi esan tzon, euskera batua au, au etzala naturala; au zala erderatik konponduta jarri zuena. Ta gauza asko dare: "atte ta ama nun dare?" ta "lanen dao"; erdaaz "está trabajando" baiño euskeraz esaten du "lanen da" o "lantokin da" o "lanea junda da" o... eta tipo orta gauza asko dare.

[A] Egunkariti ai balimanaiz ere... "permitittu" ta olako, belarriko miñe itten duen batzuk badare; gor txamarra itten tzat.
(Antonio euskaraz alfabetatzeko Zaldibiako taldean dabil: "Zaldibiko talden bi-iru laun bakarrik gare; oi nola enteitzen da? Ni gustoa ibiltzen naiz; netzako da oi zoragarrie, baiño...").

(Antonio Etxeberria eta Julian Gurrutxaga)

Beraiek esan digute euskaldunok ohitura txarra daukagula erosketak egitera joandakoan, edo geltokietan, edo medikuarenera joandakoan ere, erderaz egiteko aurreneko hitza.

Hizkera jatorrarekiko kezka agertu diguten berriemaileak izan ditugu, eta horrek soziolinguistikoki garrantzi handia du. Aholku emanez fin asko etorri zaigunik ere izan dugu. Damian Olanok idatziz ekarri digu *hitz alper* horien gainean berak gordea zuena:

Onoko topiko eo itz alper auekiñ ez katiatu, ez nastu, ez ezarri edo erantsi. Izketa astundu, pixutu, nagitu egiten dute oriek. Alper lan asko egiñez konturatu gabe lapatzen dira, eta gero iñola ere eziñ uxatu: "ba bueno", "azken fiñean", "gero arte"... Astebeten ikusiko ez, illabeten ikusiko ez, urtebeten ikusiko ez, eta "gero arte", "gero arte" ta "gero arte". Baiño aukera ikeragarrie dau!: "ikusi arte, beste bat arte, lenbiziko arte,...". Gure izeba batek "natorren arte" esaten tzon. "Ain zuzen ere"... onekiñ e, bildur naiz azkenen okertzen ez ote gean ai! Zuek jator itzeitten saiatu; orri eutsi!

(Damian Olano)

Beste iritzi batzuk ere entzun ditugu; hauek ez dira hain zehatzak, baina merezi du aipatzeak:

> Oaingo gáztek diferente itte'zue, bai. Oso diferente! Oso diferente gureandik!
>
> (Joxepa Etxeberria)

> Gureandi oaingo gaztek difente itzeingo due ta, gue lenaukok berriz e, aik esaten tzittuen gauza asko guk oaiñ eztitteu ibiltzen ta ola. Oi beti jungo da belaunaldiz belaunaldi aldatzen.
>
> Kulturakin batea beste gauza guztik. Nik ustet dana, laneako erak, itzeitteko erak eta dana. Kontuatu be juten da, zeorri etzea kontuatzen. Oixe gertatzen ai da. Ni kontuatze naiz, baiño eztau. Mundue dijon martxan gauza orik gertatzen die.
>
> (Patxi Iraola)

[D] Beti eongo'a diferentzie.

[R] Gu re ala ai men gea ikasten. Oixe, eder iitzita sobrare, polittagoa itten dala-ta.

[D] Askotan esate'iu íllobak, ta aitte ta amai ta re bai "oi ezta ola!" Ta nik eai batez, eztiet ezer e esaten.

[R] Nik eai eztauket bat e esan bearrik, eak guri esate'iu-ta. "Oi etzendun lenau ola esaten!"

[D] "Ze esanai do, ba, orrek?" Oi bai, esandu'iet. "Nik eztet entenitzen oi". Ta "orrek ola ta ola esanai do, amona." Batzutan, beste'atzutan "aitzen etzea ba eon?" esate'ie.

[M] Askotan, porejenplo, nik ikuste'ittut gauza asko. Mandóa ta mándo. Oi zer da?

[D] Bik bat izango'ie!

[M] Gauzak ola. Ok bakie. Baiño telebixiokoa re bai, mándo.

Ta ikillukoa mandóa!

[M] Ta mulea zer da? *(algarak)*

[D] Igualtsue ue re!

[M] Ola dare gauza asko.

(Maria Irastorza, Roxita Armendariz eta Dominika Eskisabel)

EUSKALKIAREN ERABILERA